A la vista de la maraña de ítems existentes en torno a los contenidos digitales y sus vinculaciones (sólo parcialmente representadas en el anexo), bien puede merecer la pena volver a leer y reinterpretar la segunda parte del título de la presente ponencia: «...la revolución soterrada...»

ANEXO I: MAPA



ANEXO II: ÁREAS DE VIGILANCIA Y SEGUIMIENTO

Accesibilidad	RFID
WCAG	Legalidad
Buscadores:	Protección de datos - dcho. intimidad
externos: posicionamiento	Propiedad intelectual
propios: parametrización	Gestión de derechos: CPL, GNU,
indexadores	Creative Commons,
Canales	Lenguaje
Multiplicidad de formatos	Adecuación
Reutilización / sinergias	Niveles de profundidad
Catalogación - taxonomías - metadatos	Plurilingüismo
Conservación (vs. preservación)	Modalidades de difusión
Backups	Push
Dispositivos	Pull
Ordenadores portátiles, Notebooks,	Notificaciones
PC sobremesa	Política de dominios y subdominios
Móviles última generación	Publicidad: contratación de
e-Book, e-Ink	Banners
Estadísticas de uso	Palabras de búsqueda
Páginas vistas, etc.	Públicos objetivos y segmentaciones
Cookies	Identidades
Inteligencia de Negocio (Business	Firma digital
Intelligence): análisis de tendencias,	Retorno de información - retroalimentación -
rutas de navegación, etc.	Feed-back:
Estructuración de la información:	CRM
Tipología contenidos	Estadísticas
Títulos-antetítulos-entradillas-ladillos-	Sistemas de votación
sinopsis	Encuestas
Dimensión multimedia	Seguridad
Firma digital	Firewalls
Funciones básicas: distribución de	Antivirus
Datos - información - conocimiento	Antispam
Entertainment	Perfiles de usuarios: privilegios y
Gestión por procesos - BPM Business	mantenimiento
Process	Servidores:
Management	Servicios web
Ciclo de vida	Servicios de correo
EFQM	Aplicaciones
Flujos de trabajo	Repositorios - Dataware
Reglas de negocio - Business rules o la	Sofisticación de los portales: grados
administración de los procesos del	Software:
negocio	Lenguajes informáticos: HTML, XML,
Herramientas: ECM	CSS, J2EE, .NET, etc.
Gestor de portales	Estándares abiertos
Gestor de contenidos	Hipertexto
Inteligencia de negocio - Business	Segregación componentes
Intelligence	Gestión de errores (calidad)
Internet de las cosas - «Internet of Things»	Plug-in

Javascripts	Usabilidad
Open source - software libre	Vídeo
Suscripciones	Streaming on-line, off-line,
Listas de distribución	Formatos, codecs, etc.
Difusión selectiva de información	Web 2.0 y redes sociales:
RSS Sindicación de contenidos	FaceBook, Twitter, Blogs, etc.
Telecomunicaciones	Foros
Protocolos: HTTP, IP, RTSP,	Wikis
Ancho de banda	Web semántica
Wifi	Morfología / lematización
Telefonía 3G	Semántica
Transacciones:	Sintaxis
e-Commerce	Ontologías / tautologías
e-Government	W3C

II

Euskal Herriko Dokumentazio Zerbitzuak: begirada bat

Teresa Agirreazaldegi, Idoia Camacho, Carmen Peñafiel eta Milagros Ronco

UPV/EHuko Kazetaritza Saileko irakasleak
Profesoras del Departamento de Periodismo de la UPV/EHU

Laburpena: Euren adierazpide guztietan (orokorrak, espezializatuak, publikoak, pribatuak, barrukoak, etab.), bibliotekak eta dokumentazio zerbitzuak, informazio- eta ezagutza-gizarterako oinarritzko azpiegiturak dira. Euskal Herrian mota horretako zer zerbitzu dagoen aztertzen du ikerketak, horien ezaugarriak, baliabide material eta pertsonalak analizatuz, eta ondare, egindako lan, eskainitako zerbitzu eta erabiltzaileen inguruko datuak eskainiz.

Resumen: Servicios de documentación del País Vasco: una mirada. En sus diferentes manifestaciones (generalistas, especializados, públicos, privados, internos, etc.), las bibliotecas y servicios de documentación son infraestructuras y servicios claves en la sociedad de la información y del conocimiento. La investigación examina la implantación de estos servicios en el País Vasco, analizando sus características, recursos materiales y personales, y proporcionando datos sobre fondos, servicios ofertados y usuarios, entre otros.

SARRERA

Informazio gutxi dago Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuen inguruan. Nekez aipa daitezke jatorri profesionaleko txostenak, ikerketa sistematikoa urria da eta zaharkitua geratu da, azkar aldatzen ari den esparrua baitugu. Hutsune hori bete nahian, ikerketa proiektu zabal bat egiten ari gara. Gure helburua, alde bate-tik, Euskal Herriko Dokumentazioaren sektorea analizatzea eta ezagutzea da eta, bestetik, dokumentazio zerbitzuen direktorio publiko bat osatzea. Egitasmoa Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatu du.

Ikerketa hau deskriptiboa izateaz gain, ebaluatiboa eta prospektiboa ere bada. Bi ataletan banatu dugu, lehenengo atalean komunikabideetako dokumentazio zerbitzuak aztertu ditugu, eta lortutako emaitzak hainbat argitalpenetan zabaldu dira jada (1) (2) (3); bigarren atalean, gainontzeko azpiegitura eta dokumentazio zerbitzuak analizatu ditugu. Ikerketaren datu adierazgarrienak azaltzen saiatuko gara hurrengo lerroetan.

Testu honi azken ukituak ematen ari ginela, gure ikerketan eragina duten bi albisteren berri jakin genuen. Lehenak zioen Espainiako Biblioteka Nazionalak bere *Biblioteka Espainiarren Direktoria* webgune berrian integratu duela. Direktorioaren arduradunarekin harremanetan jarrita, ekimena aspaldikoa dela jakin dugu,

1976koa hain zuzen ere, baina ikusgarritasuna datu basearen kokapen berriak eman dio, dudarik gabe. Bigarren albistea, Kataluniatik etorri da, eta dio Generalitateak Kataluniako liburutegi espezializatuen datu basea jarri duela bere webgunean, eta kontsultatu ahal dela. Aurreko albisteez egiaztatzen digute gure ikerketak baduela gaurkotasuna. Ezagutza zabaltzeaz gain, gaiak bere garrantzia baduela ohartarazteko eta direktorioaren beharra sentiarazteko balio badu, bere funtzioa ondo beteta egongo da.

AURREKARIAK

Direktorioak

Lehenago aipatu dugun moduan, Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuen inguruan dauden ikerketak urriak dira; guztien artean aipagarriena *La Documentación en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoan)* egitasmoa da. Proiektua 1993tik 1995era bitartean egin zen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarteak (ALDEE) eman zuen beka bati esker. Galdetegiak erabilita, EAeko 91 dokumentazio zentrotan datu bilduma osatu zuten ikerlariek, eta zentro bakoitzean datu hauek jaso zituzten: izena, helbidea eta landutako gaiak. Direktorioa ez zen inoiz argitaratu; ikerketaren emaitzak, ordea, Fesabid-en kongresuan (Artxibistika, Bibliotekonomia, Dokumentazio eta Museistakako Espainiako Federazioa) aurkeztu ziren (4), baita ALDEE elkartearen buletinaren ere (5).

Direktorioei dagokienez, aipagarriak dira 80ko hamarkadan Eusko Ikaskuntzak osatu eta publikatu zituen Euskal Herriko artxiboen (6) eta liburutegien zentsuak (7).

Bere aldetik, 1995ean, Espainako Biblioteka Nazionalak (BNE) bere *Directorio de Bibliotecas Españolas (Espainiako Biblioteken Direktorioa)* jarri zuen Interneten, Ariane OPAC-en (*online public access catalog*). Egitasmoa ez zen berria; 1976tik, Kultura Ministerioarekin batera, horren aurrekoa osatu zuen: *Espainiako Liburutegien Gida*. Gidaren kontsulta hasieran paperean eta gero ordenagailuetan egin zen, PIC egitasmoaren barruan (Informazio Kultureko Guneak). Garai hartan, *Aldizkako Argitalpenen Katalogoa* egiteko helburuarekin kontaktatu zuten liburutegiekin; eskola liburutegien zerrenda, ordea, Hezkuntza Ministeriotik jaso zuten. Gaur egun, ildo beretik dihardute *Prentsa Hemeroteken Bildumak* osatuz. 2008an, datu basea aplikazio berrian instalatu zuten, eta 2009an, webgune berrian (<http://www1.bne.es/DIBI-ConsultaWEB/inicio.jsp>).

Direktorioan 10.535 erregistro daude (2009-09-23), eta aldiro kontaktatzen dute liburutegi guztiekin datuak eguneratzeko; laster, ordea, zerbitzu bakoitzak ahal izango du Interneten zuzenean bere datuak gehitu eta aldatu (8). Arabako 224 erregistro daude, Gipuzkoako 362, Bizkaiko 349 eta Nafarroako 159. Lurralde guztiak kontuan hartuta, liburutegi hauek ditugu: eskolakoak 282, espezializatuak 306, orokorrak/publikoak 454, nazionalak 1 eta unibertsitatekoak 51. Bakoitzetik hurrengo datu hauek jasotzen ditu direktorioak:

- Bibliotekaren izena.
- Biblioteka mota.
- Sortu zen urtea.
- Erakundea.
- Zerbitzu mota.
- Helbide osoa.
- Telefonoa.
- Posta elektronikoa.
- Gaiak.
- Funtsak.
- Zerbitzuak.
- Harrera.
- Ordutegia.
- Datuen eguneratze data.

Bilaketetan hainbat irizpide erabil daitezke, eragile boolearrekin konbinatuta (*eta, edo, izan ezik*):

- Bibliotekaren izena.
- Helbidea: herria, lurraldea, elkarte autonomoa (zerrenda), herrialdea (zerrenda).
- Gaiak (700 baino gehiago agertzen dira zerrendan, bibliotekek proposatuta).
- Funtsak (40 mota).
- Funtsen mendea —hemerografikoak barne— (zerrenda).
- Zerbitzua (60 baino gehiago zerrendan).
- Biblioteken arteko mailegua.
- Biblioteka mota: guztiak, eskolako, espezializatu, orokorra/publikoa, nazionala/erregionala/elkarte autonomikoena, unibertsitarioa.
- Mendekotasun mota: guztiak, administrazio autonomikoa, administrazio lokal, administrazio publiko zentrala, herrialdeko administrazioa edo uhartekoa, partzuergoa, entitate pribatua, eliza, besteak).
- Funts hemerografikoak.

Sistemak estatistikak eskaintzen ditu, irizpide hauen arabera: lurraldeko banaketa, liburutegi mota, mendekotasunaren arabera eta harrera mota. Automatikoki osatutako estatistika horietaz aparte, BNEk ez du datuekin inongo azterketarik egin.

Dokumentazio zerbitzuak, liburutegiak eta artxiboak ezagutzeko, lanbide elkarrekin bide bat eskaintzen dute. Asnabi Nafarroako Liburuzainen Elkarteak Nafarroako liburutegiaren errolda du bere webgunean (<http://www.asnabi.com/bibliotecas-denavarra>), liburutegi bakoitzaren kontaktu datuekin; ez dago, ordea, dokumentazio zerbitzuen erroldarik, ezta artxiboarik ere. Frantziako ADBS elkarteak (Informazio eta Dokumentazioaren Profesionalek Elkarteak) dokumentazio zentroen urtekaria dauka Interneten, 400 helbiderekin (<http://www.adbs.fr/>), baina horietatik bi besterik ez dira Euskal Herrikoak. Horietaz gain, hainbat helbide lortzeko,

ALDEE, Sedic (Dokumentazio eta Informazioaren Espainiako Elkarte) eta Exit (informazioaren tratamenduan adituen direktorioa) erabili ditugu.

Katalogo kolektiboak

Direktorioek liburutegi eta dokumentazio zentroen datu orokorrak eskaintzen dituzte; katalogoek, ordea, haien funtsen berri zehatza ematen dute. Euskal Herrian hainbat katalogo kolektibo ditugu. Eusko Jaurlaritzaren webgunean bi katalogo kontsulta daitezke: *EIPS* eta *Bilgunea*. *EIPS*, *Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea*, EAEko udal liburutegietako *online* katalogoa da, eta *Bilgunea* Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunde publiko eta pribatutako bibliografia funtsek osatutako katalogo kolektiboa da. Azken horretan datuak urtean hainbatean kargatzen dira, eta koordinazioa Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari dagokio. *Bilgunean* parte hartzen duten erakundeen artean Legezko Gordailua, Eresbil, EAEko ehun udal liburutegitik gora, Eusko Jaurlaritzako sailtako liburutegiak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Sancho el Sabio, Arabako Foru Aldundia, Labayru Ikastegia eta *Ondare bibliografikoa* (Loiolako Santutegia, Gasteizko Seminarioa...) ditugu.

Nafarroako liburutegien funtsak ezagutzeko *Nafarroako liburutegi publikoen katalogo kolektiboa* eta *Nafarroako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa* ditugu (inprimatutako agirien erregistro katalogafikoak, inprimategiaren hasieratik 1910. urtera artekoak), biak Nafarroako Gobernuaren webgunean kontsulta daitezke. Bestalde, Nafarroako Liburutegi Orokorra 1940tik lurraldeko ondare bibliografikoa gordetzen eta zabaltzen ari da, Liburutegi Publikoen Sistemaren koordinazio gunearen lana betetzen du, eta Legezko Gordailua kudeatzen du. 2005etik, Nafarroako Biblioteka eta Filmoteka 20.000 metro koadroko eraikuntza berri batean bildu dituzte.

Bestalde, *Frantziako Katalogo Kolektiboaren* webguneak *Biblioteka eta ondare dokumentalen erreperitorio nazionala* jasotzen du (<http://ccfr.bnf.fr/>), non 4.800 biblioteka eta 1.700 funtsen informazioa ematen den; horietatik hamalau helbide Euskal Herrikoak dira.

Administrazioa eta legedia

Azpimarratu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoan botere publikoen aldetik inizatiba eta lidergo falta dagoela arlo honetan. 1979tik Gobernuko organoetatik datorren legedi bibliotekarioa eskasa eta garrantzi gutxikoa da, ez dago bidea markatuko duen biblioteka lege bat, Espainiako Estatuko toki ia guztietan dagoen lez (9). 7/1990 Legeak, uztaillaren 3koak, Euskal Kultur Ondareari buruzkoak, udal liburutegiak soilik arautzen zituen, kanpoan utziz EAEko zentro inportanteenak, foru aldundietako liburutegiak eta biblioteka eta dokumentazio zerbitzu espezializatuak eta pribatuak. 11/2007 Legeak ere, urriaren 26koak,

Euskadiko Liburutegiei buruzkoak, kanpoan uzten ditu zentro horiek, baina Irakurketa Publikoaren Sarean sartzeko aukera ematen die, «beren zerbitzuak herri-tar orori zabaltzen badiete».

Profesionalek sarritan salatu dute erregulazioa falta dela (10) (11) (12), baita sektorearen lidergoa aurrera eramango duten erakunde enblematikoak ere. Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiak 1998an jada honela adierazten zituen eremuaren egoera eta beharrak:

- a) Euskal Herriko biblioteka, dokumentazio zentro eta artxiboen egoera, oro har, kezagarria da: arazo eta gabezia handiak daude. Bereziki euskararen estatusari eta erabilerari dagokienez, egoera biziki txarra da.
- b) Alor honen arazo eta gabeziei aurre egiteko politika aktiboago eta eragin-korrago bat eskatzen dugu. Orobat, euskal erkidegoetan horretarako legeak egitea.
- c) Euskal Biblioteka Nazional bat eskatzen dugu, alegia, Euskal Herri osoko biblioteken arteko lotura eta koordinazioa bideratuko lukeen biblioteka. Herri agintariei eskatzen diegu lehenbailehen beharrezkoak diren elkarrizketak eta gestioak egin ditzaten proiektu historiko hori abiarazteko.
- d) Bereziki, euskarak pairatzen duen bazterketari konponbidea emateak lehen-tasun osoa behar luke izan. Euskal Agentzia Katalogafiko bat eskatzen dugu alor honetako arazoak bideratzeko (13).

Azken hogeitaz urteotan, Estatuko autonomia erkidego gehienek liburutegiei buruzko legeak onartu dituzte, baita legedi horien barruan liburutegi nagusiak sortu ere: Andaluzia, Aragoi, Asturias, Madril, Murtzia, Gaztela eta Leon, Valentzia... Bakoitzak bere lurraldean, Biblioteca Nacional delakoak estatu mailan dituen funtzioen antzekoak ditu. Kataluniako Liburutegi Legea (bigarrena, 1993koa) osatuena eta pentsatuena da Estatuko gainerakoek artean.

Nafarroan Biblioteca General de Navarra deiturikoa izango da liburutegi nagusia, eta Instituto Navarro de Bibliografía sortu dute liburutegi horren itzalean, Bibliografía Navarra ekoizteko xedearekin. Bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan aipatutako 11/2007 Legeak dioena noiz beteko itxaron beharko da, laugarren xedapen gehigarrian Liburutegien Legea indarrean sartu eta gehienez ere 18 hilabetera Euskadiko Liburutegia eratuko dela adierazten baitu. Baina oraindik ez da eratu.

IFLaren eskaerari erantzunez, J. Lor-ek eman zuen argitara 1997an bere «Guidelines for legislation for national services». Bertan ordura arteko definizioak aztertu zituen eta hiru dimentsio bereizi zituen biblioteka nazionalaren kontzeptuan: ondarea (biblioteka zahar edo klasikoek euren herrialdeetako altxor literarioei ematen diete garrantzia), azpiegitura (koordinazioa, lidergoa eta beste bibliotekei emandako zerbitzuak azpimarratzen dira) eta zerbitzu nazional hedatuak (batez ere garatu gabeko herrialdeetan, bertako azken erabiltzaileei emandako zerbitzuak nabarmentzen dira gehien) (14) (15).

Ikusten denez, Liburutegi nazionala da kultur komunitate baten erreferentzia bibliotekario nagusia bertako ondare bibliografikoaren bilketa eta kontserbazioa bermatzeko. Horrekin lotuta, hainbat zeregin ditu, nazioarteko erakundeek (Unesco, IFLA...) funtsezkotzat edo komenigarritzat jo dituztenak; zeregin horietan garrantzitsuenak lurraldeko ekoizpen bibliografikoa jasotzea, bibliografia eta katalogo kolektiboak elaboratzea, eta sistema bibliotekarioaren buru eta koordinatzaile izatea dira (16) (17). Liburutegi Nazionala ez izatea muga izugarria da herri baten garapen kulturalerako.

IKERKETA

Ikerketa bi zatitan antolatu genuen: komunikabideetako dokumentazio zerbitzuak 2008an aztertu genituen, eta gainontzeko dokumentazio egiturak, 2009an. Komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen ikerketa esparrua mugatua, nahiko homogeneoa eta ikerketa taldearentzat gertukoa denez, gaia sakontasun handiarekin ikertu ahal izan genuen. Bigarren atala, ordea, oso esparru zabala eta heterogeneoa da: zentroak oso egitura desberdinekoak dira, sakabanatuta daude eta, barne egiturak direnean, ez dira ezagunak erakundetik kanpo. Euskal Herrian Bibliotekonomia eta Dokumentazio ikasketa propioak ez egoteak, ezta profesionalen elkarrik ere (18), mugatu egiten du unibertso hori ezagutzea. Zailtasunak zailtasun, ikerketan lortutako datuak lagungarriak izango zaizkigu dokumentazioaren unibertso askotarikoa eta zabala hobeto ezagutzeko.

Ikerketako gaia

Euskal Herriko dokumentazio zerbitzuak aztertu nahi izan ditugu, baina zer dira *dokumentazio zerbitzuak*? Zerk eragiten du dokumentazio zerbitzu izatea? Ondareak? Funtzioak? Profesionalek? Informazio eta Dokumentazio Zientzietan erabiltzen den terminologia aztertuz, honela definitu dugu ikerketako gaia:

Dokumentazio zerbitzuak erabiltzaile talde baten behar informatiboak betetzeko eratzen diren informazio sistemak eta egiturak dira.

Definizio horretan funtzioak dira ardatza, baita aitorten soziala eta profesionala ere. Historikoki egitura horiek hainbat izen izan dituzte: artxibo, biblioteka, dokumentazio zentro, informazio zerbitzu... Bibliotekak jakintzaren gotorleku izan dira historian zehar; xx. mendean, irakurketa publikoaren kontzeptuari lotuta agertu dira, hau da, herritarrok kulturaz jabetzeko daukagun eskubideari lotuta. Dokumentazio zerbitzuak, berriz, informazio zientifiko eta teknikoarekin lotuta daude sortzetik bertatik, hau da, xx. mendearen hastapenetatik, edo erabiltzaile talde zehatzekin, gehienetan ezagutza esparru espezializatuetakoak. Halere, liburutegien eta dokumentazio zerbitzuen arteko mugak ez dira beti oso garbiak izaten; batzuetan, liburutegian bertan kanpokoko baliabi-

deei sarrera eskaintzen duen zerbitzua da dokumentazioa; hala, dokumentazioaz baliatuz, liburutegiaren funtsak iristen ez diren tokietara iristeko. Artxiboek dokumentu administratiboak jasotzen dituzte, hau da, erakunde, enpresa edota pertsona pribatuek beren eginkizunetan sortutakoak, denborarekin historikoak bilaka daitezkeenak. Edonola ere, ikerketak honako hau utzi du agerian: zerbitzu baten izendapena nahiko arbitrarioa izan daiteke, eta horretan tradizioak eragin handia izan dezake.

Unibertsoa

Salbuespenak salbuespen ikerketan ez ditugu aztertu EAEko artxiboak, horien datuak eta funtsen deskripzioak Irargi Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroaren webgunean jasota daudelako jada (<http://www.snae.org/>); *Artxiboen Errolda* atalean, hain zuzen. Udal liburutegiak ere ez ditugu kontuan hartu ikerketan, hiriburuetakoak salbu. EAEko udal liburutegien helbideak eta katalogoak *Euskadiko irakurketa publikoko sarean* kontsulta daitezke (19). Era berean, Nafarroako udal liburutegien funtsak ezagutzeko *Nafarroako liburutegi publikoen katalogo kolektiboa* dugu, eta liburutegi horien datuak webgune berean daude (20). Bestalde, Frantziako Katalogo Kolektiboaren webgunean kontsulta daitezke funtsak, baita *Biblioteca eta ondare dokumentalen errepertorioa*, eta Iparraldekoak Pirinio Atlantikoetako Departamenduan aurkituko ditugu (21). Sare baten barruan dauden informazio zerbitzuak ere ikerketatik kanpo geratu dira; aztertu ditugu, ordea, horien bulego zentralak. Eskola eta institutu etako liburutegiak ere ez ditugu aztertu. Zentro horiek guztiek berezko ezaugarri asko dituzte, eta merezi dute aparteko beste ikerketa batzuetarako gaia izatea.

Datu bilketa

Ikerketa egiteko, galdetegiaren metodologia erabili dugu, bi helbururekin: direktorioa osatzeko datuak jasotzea eta esparrua ikertzeko behar beste informazio bil-tzea. Galdetegiaren datuak bost ataletan sailkatu ditugu:

1. Enpresa edo erakundearen datuak:

- Izena.
- Lan arloa.
- Sarea (publikoa/pribatua).
- Webgunea.

2. Dokumentazio zerbitzuaren datuak.

- Izena.

— Helbidea:

- Zerbitzuaren webgunea.
- Telefonoa.
- Faxe.
- Harremanetarako pertsona.
- Posta elektronikoa.
- Sarrera eta erabiltzaileak.
- Ordutegia.

— Sortu zen eguna.

— Zentroaren historia laburra.

— Atxikipen hierarkikoa.

— Kontsulta kopurua.

— Langile kopurua.

— Langileen ezaugarriak: titulazio akademikoa eta generoaren arabeko banaketa.

— Lanpostuak: kopurua eta generoaren arabeko banaketa.

3. Funtsak, ekipamendua, zerbitzuak eta ekoizpenak.

— Zerbitzuak.

— Ekipamendua.

— Funtsak: gaiak, lurralde eremuak, denbora eremuak, ezaugarriak eta hizkuntza.

— Ekoizpenak: datu baseak, gidak, inbentarioak eta gainontzeko ekoizpenak (ezaugarriak eta hizkuntza).

4. Ematen dituen beste zerbitzu batzuk, hau da, galdetegian beren tokia aurkitu ez duten egitasmo interesgarriak.

5. Dokumentazio zerbitzuaren egitasmoak etorkizunerako.

Dokumentazio zerbitzuen sailkapena errazteko asmoz, jarduera sektoreen zereztrenda osatu eta galdetegiari gehitu genion. Honako jarduera sektore hauek proposatzen genituen:

— Administrazio publikoak.

— Aholkularitza, ingeniaritza eta enpresei zuzendutako mota horretako zerbitzuak.

— Aisialdia eta ikuskizunak.

— Defentsa, ordena publikoa eta segurtasuna.

— Ekonomia eta ogasuna.

— Enplegua, sindikatuak eta elkarte patronalak.

— Gizarte lana.

— Hezkuntza, unibertsitateak eta ikerketa.

— Industria (zehazteko eskatu zitzaien).

— Informatika eta teknologia berriak.

- Ingurugiroa, energia eta lurreko zientziak.
- Kirola.
- Komunikabideak.
- Kultura eta ondarea.
- Lanbide elkarteak.
- Merkataritza eta kontsumoa.
- Nazioarteko harremanak eta garapenerako kooperazioa.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.
- Osasuna
- Turismoa.

Erantzunak

Galdetegia banatzeko, 233 helbide dituen datu base bat osatu genuen; ondoren, 2008ko urrian hasi ginen galdetegia bidaltzen posta elektronikoaren bitartez, euskaraz zein gaztelaniaz edota frantsesez, aurkezpen gutun batekin batera. Erantzun ez zuten zentroetan beste bi saio egin genituen 2009ko lehenengo lau hilabeteetan (lehenengo, posta arruntaren bidez, eta gero, berriro ere, posta elektronikoz). Hainbat kasutan barruko zerbitzua delako ez dugu erantzunik jaso. Horrela adierazi digute informazioa publiko egiteari uko egin dioten arduradun batzuek.

Galdetegien erantzun maila %37koa izan da; antzeko beste ikerketa batzuekin alderatuta, nahiko ehuneko altua dela esan daiteke. Dokumentazio zentroa duten komunikabide guztiek erantzun dute, hau da, 15ek; eta gainontzeko zentroetatik 72 erantzun jaso ditugu. Guztira, gure ikerketa egiteko, 87 dokumentazio zerbitzuren datuak izan ditugu.

Datuak gainbegiratu, normalizatu, sailkatu, etiketen bitartez indexatu eta itzuli ditugu, gero Interneten dagoen direktorioan jartzeko, *Gidadok* webgunean (<http://www.gidadok.com/>). Helburua informazio hori jendeari oro har eskaintzea izan da.

DATUEN AZTERKETA KUANTITATIBOA

1. Dokumentazio zentroak, lurraldeka

Zentroak honela daude banatuta lurraldeka: 16 Araban (guztiak Gasteizen), 40 Bizkaian (horietatik 27 Bilbon), 21 Gipuzkoan (horietatik 13 Donostian), 5 Iparraldean (horietatik 2 Baionan) eta 5 Nafarroa Garaian (horietatik 4 Iruñean). Erantzun gehien Arabatik jaso dugu, lurralde horretan bidalitako galdetegien %56 erantzun baitituzte; beste ertzean Nafarroa dugu, non bidalitako %7 besterik ez dugun jaso. Erdian geratzen dira Bizkaia (%48), Gipuzkoa (%32) eta Iparraldea (%29).

2. Sortutako urtea

Zazpi zentro sortu ziren 1960. urtea baino lehenago: Ignacio Aldekoa kultur etxea, XIX. mendean (ez dute zehaztu urtea); Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Biblioteka, 1838an; Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia, 1907an; Azkue Biblioteka, 1919an; Baionako Euskal Museoa, 1924an; Radio Vitoria, 1934an, eta Koldo Mitxelena Biblioteka, 1939an. Zentro gehienak, ordea, 1976tik aurrera sortuak dira; garai emankorrena 1986tik 1990era izan zen; izan ere, urte horietan 17 zerbitzu osatu ziren. Euskal Herriko zentroetan garai horretan dokumentazioaren informatizazioa eta datu baseen hedapena gertatu zen. Aztertutako zentro berriena 2006koa da.

3. Egituraren izena

Ikertu ditugun egiturak izendatzeko gehien erabiltzen den terminoa *dokumentazio* hitza da: 47 agerraldi; horietatik 30ek *dokumentazio zentro* dute izena. Ondoren, *biblioteka* terminoa dator: 27 agerraldi; zentro horietatik 16k dute *biblioteka* izena. Hirugarren lekuan *artxibo* terminoa dugu: 13 agerraldirekin; eta 5 zentrok dute *artxibo* izena. *Zerbitzu* terminoa 9 bider agertzen da. Aurreko terminoak honela konbinatzen dira euren artean: *biblioteka* eta *dokumentazio* hitzak 11 bider agertzen dira batera; *artxibo* eta *biblioteka*, behin; *artxibo*, *biblioteka* eta *dokumentazio*, 4 bider; *informazio* eta *dokumentazio*, 3 bider, eta beste horrenbeste *artxibo* eta *dokumentazio*. Ikus dezagun koadroan:

Terminoak zentroen izenetan	
47 Dokumentazio	30 Dokumentazio Zentro
27 Biblioteka	16 Biblioteka
13 Arxibo	5 Arxibo
4 Fonoteka	
Terminoen konbinaketa	
11 Biblioteka eta Dokumentazio	
4 Arxibo, Biblioteka eta Dokumentazio	
3 Informazio eta Dokumentazio	
3 Arxibo eta Dokumentazio	
1 Arxibo eta Biblioteka	

Izendatzeko moduak asko dira, eta batzuetan betebeharrak ere halaxe izaten dira. Honela azaldu du arduradun batek kontu hori: «Zerbitzua *artxibo* izenarekin izendatu da beti, nire kontratuan nire kargua *liburuzain* hitzarekin ageri da, baina egin pixka bat denetik egiten dut, artxiboko lana, liburuzain, dokumentazioa...» (22).

8. Profesionalen ikasketak

Galdetegietan 263 langileren heziketaren datuak eskaini dizkigute:

25	Graduatu-ondokoa (%10)
142	Lizentziadunak (%54)
29	Diplomadunak (%11)
20	Teknikari espezialistak (%8)
15	Teknikari laguntzaileak (%6)
28	Batxilergoa (%11)
4	Beste batzuk (%2)

Ikusten denez, oso maila altuko langileak dira: %75ek unibertsitate ikasketak dituzte. Ikus dezagun, baina, banaketa hori generoaren arabera:

- Emakumeen artean, 18 graduatu-ondokoak dira, 100 lizentziadunak, 20 diplomadunak, 13 teknikari espezialistak, 11 teknikari laguntzaileak, 14k dute batxilergoa eta 2 *beste batzuk* taldekoak dira, hau da, %76k ikasketa unibertsitarioak dituzte, eta %56 lizentziadunak dira.
- Gizonezkoei dagokienez, 7 graduatu-ondokoak dira, 42 lizentziadunak, 9 diplomadunak, 7 teknikari espezialistak, 4 teknikari laguntzaileak, 14k dute batxilergoa eta 2 *beste batzuk* taldean daude.

Emakumeen nagusitasuna handiagoa da, unibertsitate ikasketak dituztenen artean; gizonezkoena, berriz, teknikari espezialistak eta batxilergoa ikasketa mailetan.

Ikerketaren bigarren atala egin genuenean, iruditu zitzaigun interesgarria izango zela ikasketen maila jasotzeaz gain, ikasketa horien jakintza arloak zehaztea. Hori dela eta, adierazle hori bigarren atalean bildutako datuetan dugu soilik.

Aztertutako 16 graduatu-ondokoetatik 9k, hau da, %56k, Dokumentazioko graduatu ondoko ikasketak egin dituzte; 7k, hau da, %43k, beste lerro batekoak egin dituzte: batek Historia, batek Artea, bik Kooperazioa, batek Psikologia, batek Filologia eta beste batek zehaztu gabekoa.

Lizentziadunen ikasketak honela daude banatuta: %36k Historia ikasi dute; %11k, Dokumentazioa; %10ek, Filologia; %8,6k, Filosofia eta Letrak; %7k, Kazetaritza; %6k, Zuzenbidea edota Soziologia; %3k, Ingeniaritza, Ekonomia, Pedagogia edota Artearen Historia, eta %1ek, Zientzia Politikoak, Biologia edota Kimika.

Diplomadunen ikasketak, berriz, honela daude banatuta: %36 Dokumentazioa, %27 Magisteritza, %18 Lan Harremanak, %9 Historia eta %9 Turismoa.

Datuak erakusten dutenaren arabera, dokumentazio zerbitzuetan lan egiten duten gehienek letretako lizentziatura tradizionalan ikasitakoak dira. Prestakuntza

espezifikoek, ordea, graduatu-ondokoetan eta diplomaturetan dute nagusitasuna. Hori langileen eraberritzearen prozesu baten erakuslea izan daiteke.

9. Lanpostuak

Dokumentazio zentroetako langileek hurrengo kategoriak betetzen dituzte: %19k, Zuzendari-Arduradun; %22k, Dokumentalista; %16k, Liburuzain; %6k, Artxibozain; %18k, Laguntzaile; %9k, Administrari, eta %9k, beste batzuk.

Sexuaren arabera, honela daude banatuta kategoriak:

- Emakumeak: %10, zuzendari-arduradun; %10, dokumentalista; %11, liburuzain; %3, artxibozain; %20, laguntzaile; %8, administrari, eta %5, beste batzuk.
- Gizonezkoak: %5, zuzendari-arduradun; %3, dokumentalista; %3, liburuzain; %1, artxibozain; %11, laguntzaile; %3, administrari, eta %6, beste batzuk. Ehuneko guztiak alderatuta, esan dezakegu gizonezko arduradunena altua dela, baita *beste batzuk* kategoriakoena; azken horiek eginkizun teknikoak dira, edota mandatari lanei dagozkie.

AZTERKETA KUALITATIBOA

Aztertu ditugun egiturak bi multzotan bana daitezke, independenteak direnak —hau da, gure kasuan 5 liburutegi handiak eta 3 artxiboak— eta erakunde baten atalak direnak —gainontzeko guztiak, 79—. Gure ikerketan, erakunde horiek 9 administrazioak, 2 instituzioak, 4 hezkuntza zentroak, 4 unibertsitateak, 5 ospitaleak, 5 elkarteak, 25 institutu eta fundazioak, 3 lanbide elkargoak, 4 museoak, 7 enpresak, 1 sindikatua eta 15 komunikabideak dira.

Gaiaren arabera, ikertutako zentroak honela daude banatuta: 9 Orotarikoak, 18 Kultura, 20 Gizarte Gaiak, 7 Industria eta Teknologia, 15 Albisteak eta 8 Osasuna. Aurreko sailkapenak murrizketa handiak dakartza ezinbestean. Hala, unibertsitateetako liburutegiek atal espezializatuak dituzte, baina sailkatzeko orduan, erakunde osoa kontuan harturik, *orotarikoak* sailean sartu ditugu; beste aldean, irratietako fonotekak *albisteak* kategoriaren barruan daude, erakundeari lehenetsia emanez, baina, zalantzarik gabe, musika grabazioak dira ugariak, eta alde horretatik, *kultura* atalean ere egon zitezkeen.

Zentro independenteak: Liburutegi handiak

Bost liburutegi handik hartu dute parte ikerketan, horietatik lauk 50 urte baino gehiago dituzte: zaharrena XIX. mendekoa da; berriena, berriaz, 2005ekoa (Miarrizteko mediateka). Guztiak sare publikoan edota publiko eta pribatuan daude (Bizkaiko Foru Aldundikoa, kasu). Langile asko dituzte: langile gutxien

duenak 24 ditu, eta gehien duenak, 57, ikasketa eta kategoria askotarikoak. Bil-tzen dituzten funtsak oso handiak dira, eta ehun mila liburu aise gainditzen di-tuzte; hainbat formatutan dituzte horiek, baina liburuek dute nagusitasuna. Sa-rerra publikoa dute, eta oso ordutegi zabala.

Zerbitzu asko eta askotarikoak eskaintzen dituzte: informazio eta orientazio bibliografikoa (bai lekuan bertan, bai modu birtualean), erreferentzia zerbitzua, ka-talogoen kontsulta, dokumentuen kontsulta, dokumentuen mailegua, liburutegien arteko mailegua, Internet bidezko mailegu berritzea, erosketa proposamenak ja-sotzeko sistemak, erreserbak, informazioaren hedapen hautatuaren zerbitzuak eta erabiltzaileen formazioa. Hainbat tokitan, galderak faxez, posta elektronikoz eta te-lefonoz ere jasotzen dituzte.

Datu baseen kontsulta eskaintzen dute, sarean eta euskarri optikoetan. Bil-duma digitalak gero eta ugariagoak dira, prentsa, liburuak eta dokumentu elektro-nikoak bilduta. Entzunezkoak eta ikus-entzunezkoak ere badira, DVDn eta beste formatu batzuetan. Horrez gain, mapak, grabatuak, dokumentu historiko garrantzi-tsuak, bilduma bereziak, inkunableak, eta abar ere aurki ditzakegu. Funtsak batik bat gaztelaniaz daude (edota frantsesez Miarritzeko mediatekan), neurri txikiagoan euskaraz, eta batzuk beste hizkuntza batzuetan.

Ekipamendu zabala dute: ikasketa aretoak, irakurketa eta kontsulta aretoak, erreferentziako zerbitzuak, hemerrotekak, ikertzaileen aretoak, Interneten konsul-tatzeko aukera ematen dute, wifi sareak, kopiagailuak, ordenagailuak (finkoak zein eramangarriak), inprimagailuak, mifrofilm eta mikrofitxen irakurgailuak, bideo eta DVD irakurgailuak eta telebistak.

Gai orokorrez gain, atal espezializatuak ere badituzte, batez ere euskal gaiak, herriko informazioa edota herrialdekoa jasotzeko. Erreferentzia sekzioa dute, baita hemeroteka ere, non eguneko prentsa paperean zein modu digitalizatuan eta *online* zerbitzuak —*Hemeroteka Plus* eta *Iconoce*— eskaintzen dituzten. Talde zehatz batzuentzako atalak ere egoten dira, hala nola itsuentzako eta ikusmen urri-tasunen bat duten pertsonentzako zerbitzuak, umeentzako atalak, *bebeteca*-k, gura-soentzako bibliotekak eta gazteentzakoak.

Irakurketa gidak eta dokumentu berrien gidak osatzen dituzte, eta gai lokalen in-guruko bibliografiak eta aldizkarien hustuketa ere egiten dituzte zenbaitetan. Luzapen bibliotekario edota kulturaleko ekintzak ere eskaintzen dituzte sarri, alegia, ikastaroak, bisita gidatuak, erakusketak, ospakizun aretoak, argitalpenak eta liburuen salmenta.

Etorkizunari dagokionez, ondorengo asmoak adierazi dituzte: webgunea berri-tzea, wifi sareak ezartzea, digitalizazioarekin segitzea, ONA tarjeta erabiltzea, al-dizkarien hustuketa egitea eta erabiltzaileak prestatzea.

Zentro independenteak: Artxiboak

Artxiboek dituzten funtsak bakarrak direla, horixe da horien berezitasuna. Eta funts horiek deskribatzeko, inbentarioak eta katalogoak osatzen dituzte. Era-biltzaileak espezialistak eta ikertzaileak izaten ohi dira, eta artxiboetan bertan bi-

bliotekak eta hemeroteka espezializatuak ere izaten dira, ikerkuntzarako tresna gisa. Bi eta hamar (Eresbil) profesional artean lan egiten dute ikertu ditugun artxiboetan; haiek artxibistikan eta artxiboko gaiaren inguruko adituak dira. Aztertu dugun artxibo zaharrena 1974koa da, eta berriena, 2000. urtekoa; bi pribatuak dira, eta bat, publikoa. Artxibo horien etorkizunerako erronka digitalizazioa dela adierazi digute.

Mendeko zentroak: Museoak

Museoetako zentroek funts espezializatuak dituzte, eta liburuak ez diren beste materialak ugariak dira bertan. Publikoak edota fundazioak dira. Sarrera zabala eskaintzen dute, baita ordutegia ere, baina ez liburutegi handiena bezainbestekoa. Dokumentazio zentroak museoekin batera sortu ziren; bi muturretan San Telmo museoa, 1902an sortua, eta Artium, 2002an sortua, ditugu. Langile kopurua 2-6 lagun tartean dago; denak lizentziadunak dira.

Katalogo bibliografikoak, Interneteko baliabideen gidak, erabiltzaileentzako gidak, dosierak, aldizkarien aurkibideak eta argazkitegiak eskaintzen dituzte. Hainbat ekitaldi ere antolatzen dituzte bertan, zentro espezializatuetakoa bilkurak, irakurketa klubak, erakusketak, tertuliak, liburuen aurkezpenak, lantegiak, hitzaldiak, liburuaren egunak, *bookcrossing*... Bekak ere eskaintzen dituzte. Etorkizunerako, egitasmo haiek dituztela adierazi digute: lankidetzaren profesionala bultzatzea, web 2.0 inguruko zerbitzuak eskaintzea, lantegiak antolatzea, Intraneta garatzea, museoaren artxiboa osatzea eta web orria gaurkotzea.

Ikerketan museo bateko dokumentazio sail bat ere aztertu dugu: Gasteizko Arte Ederretakoa. Kasu horretan, barruko zerbitzua da, eta hurrengo betekizun hauek ditu: museoeko bilduma katalogatzea eta horren dokumentazioa osatzea, bildumako piezen eta egileen inguruko informazioa biltzea, bildumako piezen argazkiak jasotzea, museoaren eta museologiaren inguruko informazioa biltzea, argazki artxiboa kudeatzea, eta egile eta lanen artxibo dokumentala kudeatzea.

Mendeko zentroak: Administrazioa eta erakundeak

Barruko langileentzat osatutako zentroak dira, egoitzarako sarbidea mugatua baita, eta hartzaile guztiei zuzendutako informazioa erakundearen webgunean jarzen dute. Ordutegi zabala dute, lanekoa, eta langile kopurua bi eta zortzi artekoa da. Zerbitzu zaharrena 1983koa da, eta berriena, 2006koa.

Honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: kontsulta, mailegua, informazioa eta erreferentziak, informazioaren hedapen hautatuak, alertak, aholkularitza bibliografikoa, dokumentuak eskuratzea, buletinak, aholku teknikoak, txosten dokumentalak, teknologikoak eta sektorialak.

Funts hauek dituzte: liburuak, aldizkariak, liburuxkak, multimedia dokumentuak, dokumentu elektronikoak eta datu baseak (DVD, CD eta sarean). Erreposi-

torioak dituzte (*Euskadi.net*). Katalogoak, prentsa datu baseak, aurkibideen buletinak, dokumentu berrien buletinak eta adituen datu baseak osatzen dituzte, eta trebakuntza eta aholkularitza ere eskaintzen dute. Dokumentuen hizkuntza gaztelania da, eta ingelesa eta euskara ere bai, baina neurri txikiagoan.

Etorkizunerako, egitasmo hauek adierazi dituzte: web orriak indartu, informazioa eta dokumentazioa hedatzeko; aldizkako argitalpenen katalogo kolektiboa osatu (elektronikoak barne) Eusko Jaurlaritzako beste liburutegi espezializatuekin; Gazteria *Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren* barruan sartu; aldizkariak eta analitikak Absys kudeaketa sistema integralaren barruan sartu.

Aldaera: Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako dokumentazio egitura barruko beharrei erantzuteko da, baina ikertzaile eta herritarrentzat ere zabalik dago. 1981ean osatu zuten, eta gaur egun 26 lagunek lan egiten dute bertan: zortzik artxihoan, hamarrek liburutegian eta dokumentazioan, seik argitalpenetan eta bik zuzendaritzan.

Honako funts hauek dituzte: artxihoan, Espainiako Estatuak transferitutako dokumentuak, EAEko Administrazioak sortutakoak eta dohaintzak; bibliotekan, hainbat funts hizkuntza anitzetan; eta horiez gain, euskal prentsaren hemeroteca digitala. Dokumentuen denbora-eremuak hauek dira: artxihoa (1566-), biblioteka (1548-), argitalpenak (1987-). Kontsultaz gain, dokumentuen eskuratzea, liburutegien arteko mailegua, prentsa dosierrak, dossier dokumentalak, dokumentuen erreproduktzioa, liburuen salmenta eta argitalpenen edizioa egiten dute. Datu base hauek osatzen dituzte: aldizkari ofiziala, prentsa, argazkiak, bibliotekako katalogoa. 2004an *Eusko Jaurlaritzaren liburutegietako aldizkako argitalpenen katalogo orokorra* publikatu zuten, argitalpenen katalogoa eta argitalpen berrien buletina, eta horien liburuxka.

Etorkizunerako, egitasmo hauek dituzte: artxiboaren kudeaketa, artxibo digitala eta kudeaketa administratiboa, e-administrazioari zuzenduta; eraikuntza berri bat izatea, robotizatua; biblioteka digitala, web 2.0 eta biltegi instituzionala eraikitzea; eta argitalpenetan liburu eletronikoak argitaratzea.

Aldaera: Eusko Legebiltzarra

1981. urtean osatu zuten, Azterlanen zuzendaritzapean, eta gaur egun 16 lagunek lan egiten dute bertan. Barrurako zerbitzua da, baina ikertzaile akreditatuak ere onartzen dituzte. Liburutegi eta artxiboen funtsak kontsultatu ahal dira, eta edozein motatako informazio eskaerari erantzuten diote. Dokumentuen eskuratzea ahalbidetzen dute, eta horien mailegua, bertakoa zein biblioteken artekoa. Kudeaketarako tresna informatikoak eta datu base espezializatuen sarrera eskaintzen dituzte. Bilduman euskal gaien funts historikoak, bolivartar bildumak, zuzenbide publikoak eta osagarriak dituzte. Bibliotekako katalogoaz gain, datu base hauek eskaintzen dituzte: ekimenen, osoko bilkuren, batzordeen eta buletinen datu ba-

seak. Horrez gain, argitalpen ez-ofizialen katalogoa eta *Infoberriak* (asteroko buletina) osatzen dituzte.

Aldaera: Arabako Biltzar Nagusiak

Dokumentazio eta Informazio Sistemen Zerbitzua 1986an osatu zen, eta bi lagunek lan egiten dute bertan. Hauek dira zerbitzuaren betekizunak: dokumentazio funtsen antolaketa, deskribapena eta hedapena; funts elektronikoen eta artxi-boko funtsen kudeaketa elektronikoa; liburutegi osoaren kudeaketa (eskuratzea, katalogazioa, mantentze lana eta hedapena); aholkularitza tekniko dokumentala; dosierrak; erreproduktzioa eta hedapena; espedienteen digitalizazioaren kudeaketa lanak eta horiek webgunean jartzea; webguneko informazioaren mantentze lan osoa, atal guztietako informazioa, Ganberako organoen saioen digitalizazio sistemen zuzendaritza eta kontrola; eta datu baseen inplementazioa eta kudeaketa (arauak, aktak, biografiak). Horrez gain, Ganberaren informatika zerbitzuen kudeaketa administratiboaren zuzendaritza eta ardura teknikoa dute.

Arabako Gobernuako organoen Akta Historikoak (1502-1877) gordetzen dituzte; gainontzeko funtsak, ordea, 1979tik aurrera sortutakoak dira. Testuak (Legebiltzarreko espedienteak), irudiak, ikus-entzunezkoak (saioen bideoak), entzunezkoak eta elektronikoak (aktak, espedienteak, ikus-entzunezkoak, soinuak) dira. Prentsa dosierrak automatizatuak daude 2003tik. Edukiak argitaratzeko sistema dute, Legebiltzarreko informazioa kudeatzeko eta hedatzeko osoko sistema, eta horren barruan, hurrengo datu baseak: saioen aktak (webgunean), arautegi instituzionala (Intranet), Legebiltzarreko jardunak (webgunean), mozioak, akordioak (webgunean eta Intraneten), funts bibliografikoak, aldizkako publikazioak (Intranet). Horiez gain, biografia (webgunean), argazkia eta prentsa (dosierrak eta albisteak) datu baseak dituzte. Halaber, akta historikoen hustuketa ere egiten ari dira (laburpenak, transkripzioak, irudiak).

Webgunean gaur egungo informazioari 1979tik 1999rako dokumentazio guztia gehitzea da etorkizunerako duten egitasmoa (testua, ikus-entzunezkoa eta grafikoa), baita webguneko kontsulta sistemak aldatzea ere, sistema intuitiboagoak eta sartzeko errazagoak ezartzeko.

Aldarea: Ingurugelak

Bost zentro daude EAEn, ordutegi zabala dute eta, sarritan, langileek dokumentazio gunea kudeatzeaz gain, beste ardura batzuk ere badituzte; esaterako, aholkularitza, proiektuen dinamizazioa eta formakuntza. Material didaktikoa dute, eta funtsetan eta katalogazioan euskara ohikoa da. Informazio buletinak osatzen dituzte, hala nola dokumentu berrien buletin elektronikoa irakasleentzat, nagusiki horiek erabiltzen baitituzte. Ingurumen dokumentazio zentroen sarean daude (RECIDA), eta horrek zenbait kontsultari erantzuten laguntzen die. Urdaibaikoak Eusko Jaurlaritzako katalogoan integartzeko asmoa adierazi du.

Aldaera: Osasun Saila eta Osasun Lurralde-Zuzendaritzak

Sarbide mugatua dute, baina inoiz salbuespena eginda, kanpoko profesionalak ere atenditzen dituzte. 80ko hamarkadan sortu ziren, baina horietako batean langile espezializatuak 1998an hasi ziren lanean; langile kopurua bat eta hiru artekoa da.

Zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: mailegua, baita liburutegi artekoa ere; informazio bibliografikoa; bilaketa zientifiko espezializatuak; dokumentuen hautaketa eta eskuratzea; barneko erabiltzaileen prestakuntza espezializatuak; erabiltzaileen edozein informazio eskakizuni erantzutea; artxibo administratiboaren kudeaketa; aholkularitza; ezagutzaren kudeaketako bitartekaritza; aplikazioen prestaketa, eta baliabide elektronikoen aktibazioa. Honela deskribatzen du bere lana saileko arduradunak: «Kudeatzaile, liburuzain, dokumentalista eta artxibozain lanak egiten ditut, eta erabiltzaileen formakuntzaz, eta aplikazioen, tresnen eta sareko eta inprimatutako informazio iturrien inguruko erabakiak hartzeaz ere arduratzen naiz. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Osasun Lurralde-Zuzendaritzekin lan egiten dugu. Webgunearen egitura eta mantentze lana koordinatzen dut. Osakidetza ospitaleetako liburutegiekiko koordinazioa egiten dut».

Funtsak eguneratuta daude; informazioak ez dauka hamar urte baino gehiago. Dokumentuak gaztelaniaz eta ingelesez daude; beste hainbat lan, berriz, Eusko Jaurlaritzak argitaratuak, euskaraz eta gaztelaniaz. Monografiak, aldizkariak, literatura grisa, euskarri berrietako dokumentuak dituzte, eta gero eta gehiago argitalpen elektronikoa eta harpidetza elektronikoa partekatutakoak. Osasun Saileko Liburute-giaren Katalogoak Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeetako liburutegenak, Osasun Sailekoa eta Erizaintza Eskolakoa biltzen ditu. Saileko hiru liburutegiek partekatzen dituzte datu baseak eta aldizkari elektronikoen harpidetza, gastuak eta edukien sarbideak elkarrekin banatuta.

Etorkizunean ligurutegi digital eguneratuaren kontzeptuarekin segituko dute, eta Espaniako Osasun Sistema Nazionalaren Biblioteka Birtualean parte hartzeko asmoa ere adierazi dute. Era berean, Osakidetza ospitaleetako bibliotekekin lankidetzara osoa izan nahi dute, Osakidetza eta Osasun Saileko baliabide guztien kontsulta bermatuko duen sare instituzional bat eraikita.

Mendeko zentroak: Ospitaleak

Aztertutako guztiak zerbitzu publikoak dira; sarrerari dagokionez, mugatua edota zabala izan daiteke. Lau zentro 70eko hamarkadan sortu ziren; bat, berriz, 1999an. Orduetara oso zabala dute (12 eta 13 ordukoa). Langile kopurua batetik lura doa, baina hiru ospitaletan langile bakarra dago, hiruretan administrari kategoriarekin, nahiz eta horietako bat lizentziaduna izan.

Zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: erreferentzia zerbitzua; informazio bilaketak; bilaketa bibliografikoak; erreprografia; kontsulta; mailegua, baita liburutegen artekoa ere; prestakuntza eta aholkularitza; zentro batean Dokumentuak Eskuratzeko Zerbitzua dute (SOD). Horrez gain, erabiltzaileei etengabeko trebakuntza eskaintzen zaie.

Funtsak honako dokumentu hauek osatzen dituzte: liburuak, aldizkariak, tesiak, literatura grisak eta datu baseak. Paperean zein formatu elektronikoan, eta gaztelaniaz, ingelesez eta fantsez daude, batik bat. Gurutzetako ospitaleko funts zaharrenak 1930ekoak dira. Barruko datu baseak osatzen dituzte; esate baterako, liburuen katalogoak (paperez) eta aldizkariaren katalogoak (paperean zein formatu elektronikoan). EAEko osasun arloko dokumentazio zerbitzuek sarean lan egiten dute, eta baliabide elektroniko guztiak erakundeko langileek kontsultatzeko moduan daude Intraneten, Osakidetzako Liburutegi Birtualean. Zentro bateko liburutegia berri egingo dute, baita programa eta funts elektronikoak ere.

Mendeko zentroak: Enpresak

Gure ikerketan parte hartu duten enpresak pribatuak dira, oso puntakoak, eta barneko dokumentazio zerbitzuak dituzte. Zerbitzu zaharrena 1982an sortutakoa da, eta berriena, 2001ean. Laneko ordutegia dute, eta langileen kopurua batetik laura bitartekoa da, gehienek letretako formakuntza dute: 2 graduatu-ondokoak dira (letretan eta medikuntzan); 12, lizentziadunak —8 letretakoak, 3 zientzieta-koak eta 1 teknologietako ikasketetakoak—, eta 3 administrariak dira.

Honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte: informazioaren eta dokumentazioaren bilaketa eta erosketen kudeaketa (artikulu zientifikoak, liburuak, aldizkari zientifikoak, datu baseak, atari espezializatuak), aldizkariaren harpidetza, bilaketa bibliografikoak, kontsulta, liburuen mailegua, bibliografiaren kudeaketa, aldizkariaren indizeen zerbitzua, prentsa laburpena, erakundearen proiektuen artxiboaren kudeaketa, legeen segimendua eta eguneratzea, zaintza eta alerta teknologikoak, prospektiba, industria sektoreen zaintza konpetitiboa, elkartetako kideen inguruko informazioaren kudeaketa, erabiltzaileen formakuntza dokumentazio zerbitzuko informazio baliabidetan; webguneko edukien eta blog korporatiboen kudeaketa. Ikertutako zerbitzu bat artxiboa da, eta erakundearen gestioak sortutako funts administratiboak ere kudeatzen ditu.

Datu base dokumentalen diseinu eta mantentze lana egiten dute (liburuen katalogoa, aldizkariaren katalogoa, arauak, artxiboa, eta abar) eta kanpoko datu baseen sarbidea kudeatzen dute. Ikerketa unitateentzat interesa duen informazioaren segimendua osatzen dute (prentsa, laguntzak, lehiaketak, legeak, ekitaldiak, arautegia...) eta Intraneten kudeaketa eta mantentzea. Hedapen informatiboa buletin bitartez egiten dute: dokumentu berrien buletinak eremu teknologiko bakoitzean (liburu, aldizkari, legeria, albiste, deialdi, agenda eta abar); informazio orriak, tratamendu azkarragoa eta zabalagoa behar duten auzien azken albisteak zabaltzeko (diru laguntzak...) eta sektore bakoitzari buruzko legeen buletinak (ingurugiro alorrekoa, elikagai alorrekoa...), Europako legeak, Espaniakoak, bertakoak...

Funts hauek dituzte: liburuak —formatu elektronikoan ere bai—, aldizkari zientifikoak eta teknikoak —paperean eta sarean; azken horiek gero eta ugariagoak dira—, gehienak nazioartekoak, eta CD-ROM eta DVD batzuk —batik bat, kongresuetako materiala—. Gehiena ingelesez eta gaztelaniaz dago. Zerbitzu hauek funts digitalak dagoeneko gehiago dira, besteak baino. Arduradun batek honela

azaldu du: «Enpresa kudeaketari buruzko 400 bat liburu ditugu, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Paperean ez dugu ezer gehiago. Harpidetza bidez jasotzen ditugun aldizkariak bota egiten ditugu».

Krisi ekonomikoa nabaritu dute, baina ez dokumentazio zerbitzuan. Dokumentazioburu batek honela azaldu du etorkizunerako dituzten egitasmoaren berri: «Nondik oratu krisi honi? Eutsi zerbitzuari, eta, ahal den neurrian, hobetu zerbitzua. *Krisi garaian, hobetu*». Etorkizunerako, egitasmo hauek aipatu dituzte: bertako ikerlarien argitalpen zientifikoaren funtsak digitalizatu; Intraneten erabilera bultzatu, enpresako informazioaren kudeaketarako tresna den aldetik; gaur egungo webgunea aztertu; web plataforma bat osatu, zerbitzuak barneko bezeroei eta fundazioko kideei eskaintzeko; eta web 2.0ko tresnak sustatu enpresa barruan.

Gainontzeko zerbitzuekin alderatuta, honako elementu hauek azpimarratuko genituzke: dokumentuen eta informazioaren tratamendu sakona eta azkarra; hedapenaren garrantzia, alerten, zaintza teknologikoaren eta ekoizpen sektorialen bitartez; digitalizazioaren zabalkuntza; Intraneten garapena, komunikazio tresna modura, eta dokumentazio zerbitzuen parte-hartzea enpresako webgunearen garapen eta mantentze lanetan.

Mendeko zentroak: Unibertsitateak

Hiru unibertsitatetatik jaso ditugu datuak: Mondragon Unibertsitatetik, Euskal Herriko Unibertsitatetik eta Paueko eta Aturri Aldeko Herrietako Unibertsitatetik; lehenengoa pribatua da, eta gainontzeko biak, publikoak. EHUtik bi erantzun jaso ditugu, Informatika Fakultateko eta Eskola Politeknikoko liburutegietatik (2008tik fisikoki bat eginda daude) eta Liburutegi Zentraleko Dokumentazio eta Erreferentzia Zerbitzutik. Ez dugu lortu, ordea, EHUko Liburutegiko zuzendaritzatik erantzunik jasotzea, eta ezin izan dugu liburutegi handi eta konplexu horren nondik norakoen berri jakin. Web orriak dioenaren arabera, Leioako Liburutegi Zentraletik aparte, beste 24 liburutegi daude fakultate eta eskoletan.

Unibertsitateko liburutegiek ikasleei, irakasleei eta ikertzaileei ematen diete zerbitzua, baita bertako gainontzeko langileei ere (23). Horrez gain, Pauekoak kanpokoei ordainduz gero erregistratzeko aukera ematen die. Oso ordutegi zabalak dute. Horretan Mondragon Unibertsitateko liburutegia apartekoa da, 07:45etik 00:00era ematen baitu zerbitzua; zabaltasun horrek, ordea, zentroak dituen baliabideekin kontraste egiten du, bost lagunek lan egiten baitute bertan, hiru zentroan banatuta, eta hamar bekadunen laguntzarekin.

Liburutegiek zerbitzu asko eskaintzen dituzte: orientabide eta informazio zerbitzua, informazio bibliografikoa, bilaketa dokumentala eta bilaketa bibliografiko pertsonalizatuak, dokumentuak eskuratzeko zerbitzuak, dokumentuen mailegua, dokumentuen erreserba, biblioteken arteko mailegua, material bibliografikoaren erosketa eta kudeaketa, funtsen kontsulta zuzena — liburu, aldizkari, tesi eta erreferentziako lanak —, katalogoak sarean, liburutegi digitalak, aldizkari elektronikoak, sarean dauden datu baseak, alertak eta informazioaren gaikako hedapena, errepro-

grafia eta erreproduzio digitala. Erabiltzaileak baliabide elektronikoetan eta, oro har, informazio konpetentzietan trebatzeko aukera ematen dute.

Paueko eta Aturri Aldeko Herrietako Unibertsitateak bi zentro ditu, Baionan eta Angelun, eta horietan 40.000 liburuki, 300 aldizkari paperean eta hainbat baliabide elektroniko dituzte. Dokumentu gehienak frantsesez daude; ikerketa lanak, berriz, ingelesez; euskarazko funtsak ere badituzte (hizkuntza, literatua, historia...).

EHUko Informatika Fakultateko eta Eskola Politeknikoko liburutegiak 46.400 liburu (gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz), aldizkako 238 argitalpen, arau tekniko (UNE, ISO...), tesi, karrera osteko proiektu, bideo, DVD eta CD-ROM, aldizkari elektroniko (Elsevier, Wiley, Springer, IEEE...) eta datu baseen sarbidea eskaintzen du.

Mondragon Unibertsitateko Biblioteka ikerkuntza eta ikaskuntzarako baliabide zentroa da, baita irakaskuntza eta unibertsitate osoaren funtzionamendu, kudeaketa eta jarduerarako baliabide zentro bat ere. Bibliotekaren eginkizuna informazio baliabideak eskuratzea eta hedatzea da, unibertsitateko ikasle eta irakasleen prozesuak eta ezagutza lantzeko beharrezkoak diren informazioa eta baliabide teknologikoak eskainita. Ekipamendu handiak ditu, guztira 2.356 metro koadroren hiru campusetan banatuta: haririk gabeko sarea, 450 lan eremu, bakarkako eta taldeko lanetarako 19 gela, ordenagailu gela bat, 125 ordenagailu, eskanerrak, fotokopiagailuak, inprimagailuak eta ikus-entzunezko ekipoak. Mailegu zerbitzuan ordenagailu eramangarriak, argazki kamerak, bideokamerak, haririk gabeko txartelak, audio grabagailuak eta abar dituzte; gainera, ikasleek beren prestakuntzarako behar dituzten aplikazio informatiko guztietara sar daitezke bibliotekako ekipo informatikoetatik. Katalogoa eta datu baseak eskaintzen ditu, Dspace biltegia (E-Print), baita liburu (Springer, e-libro, Referex...), aldizkari (Springer, Scientific.net...) eta aurkibide elektronikoak ere (mila aldizkari baino gehiagoren aurkibideak) (24). Liburutegiak zenbait ikastaro ematen ditu: bibliotekaren aurkezpena eta informazio bibliografikoari buruzko sarrera saioak; ikastaro espezializatuak, informazio baliabide konkretuei buruzkoak eta eskaintza unibertsitarioaren barnean araututa dauden ikastaro espezifikokoak.

Mendekoak: Hezkuntza zentroak

Zentro publiko zein pribatuak dira; guztietan ikasleak eta irakasleak dira erabiltzaile nagusiak, baina ez bakarrak, jende guztiarentzat zabalik baitaude. 1980an sortu zen lehena, eta 2000. urtean azkena. Langile kopurua batetik lura doa. Lau langile dituen, eskolako izateaz gain, liburutegi publikoa ere bada, eta liburutegi publikoen sarean dago.

Aldaera: Nafarroako Antzerki Eskola

1993an sortu zen zentroa, eta bi lagunek lan egiten dute bertan. Nahiz eta pribatua izan, pertsona guztientzat zabalik dago. Gordetzen dituzten funtsak hauek dira: liburuak, antzerki testuak, bideoak, CD-ROMak, musika (hainbat formatutan), aldizkariak, eskolako artxiboak, lehiaketak, ekoizpenak, mintegiak, kartelak eta pro-

gramazioak. Nafarroako arte eszenikoaren inguruko datu baseak osatu dituzte; profesional, talde, ekoizpen eta emanaldiei buruzkoa, hain zuzen. Bibliotekak zerbitzu hauek eskaintzen ditu: kontsulta, aholkularitza eta mailegua. Kultur enpresa, ekoiztetxe, *casting* enpresa eta abarrei aholkularitza eskaintzen diete. Eskolak aldizkari bat ekoizten du, udako ikastaroak egiten ditu eta beste arloetako ikasle eta ikertzaileei Nafarroako antzerkiaren inguruko informazioa zabaltzen diete. Nafarroako antzerkiaren historiaren inguruko ikerketa lanak egiten eta argitaratzen dituzte.

Aldaera: Francisco Escudero Kontserbatorioa (Donostia)

Liburutegia 80ko hamarkadan sortu zen, liburuzainaren plaza sortu zenean. Lehenagotik, kontserbatorioak funtsak biltzen zituen (partiturak, liburuak eta diskoak), irakaskuntzaren jarduerak sortutakoak, eta irakasleen eta musikarien dohaintzei esker lortutakoak. Zerbitzuak irakasle, ikasle eta erabiltzaile orori eskaintzen dizkiete. Liburutegiak eskuratze askeko funtsak ditu, erreferentziako lanak, liburuak, partiturak eta CDak; azken horietan 20.000 titulu dituzte. Horien katalogoa Absys-en dago. Horrez gain, bi artxibo musikal garrantzitsu daude, banda eta orkestrarena, kontserbatorioiko bertako eta Donostia hiriko orkestra eta banden musika jarduerak sortuak. Orkestrarena, inbentariatua eta katalogatua dago, eta bandarena, inbentariatua soilik. Bertsiok, konponketak eta eskuz idatzitako musika dituzte, eta Knosys programarekin osatutako datu basean 6.000 titulu daude. Horri guztiari, kontserbatorioiko artxibo historiko-administratiboa gehitu behar zaio.

Aldaera: Udalaren Musika eta Dantza Eskolako liburutegia (Donostia)

Eskolako liburutegia da, baina, aldi berean, publikoa da. Lau lagunek lan egiten dute bertan. Bilduman, liburuak, aldizkariak, musika dokumentuak zenbait formatutan (CD, DVD, CD-ROM), partiturak eta artxiboak (talde partiturak) daude. Pianoak ere badaude partiturak probatzeko. Zerbitzu hauek eskaintzen ditu: aretoan bertan materiala kontsultatzeko aukera (erreferentziako lanak, liburuak, partiturak, fonoteka), OPAC katalogoa sarean, jendearentzako arreta eta orientazioa, informazioa eta erreferentzia saila (bekak, deialdiak, kontzertuak, ikastaroak, lehiaketak), desideratak eta iradokizunak, eta erreprografia. Honako atal hauek daude: mikroteka-Internet, fonoteka eta hemeroteka. Jarduera osagarriak egiten dituzte: gidak, liburuxkak, ipuinaren ordua, interes guneak... Horrez gain, Interneteko gidak egiten dituzte, musika baliabideekin; eta Udalaren Txistu Bandako artxiboko saila osatzen dute (dokumentazioa, prentsa, artxiboak eta partiturak).

Mendeko zentroak: Elkargoak

Hiru zentro ikertu ditugu: bi barruko zerbitzuak dira, eta besteak sarbide librea du, baina mailegua kideek bakarrik egin dezakete. Ordutegi zabala dute. Biblioteka batek pertsona bakarra du lanean, eta beste biek, bi; horietako batean langile biek

administrari kategoria dute. Historia luzeko zentroak dira; zaharrena 1838koa da eta beste bat 30eko hamarkadakoa; hala ere, zerbitzu profesionala nahiko berria da: «Biblioteka erabilera eta zainketa egokirik gabe egon da urteetan. 2000tik aurrera ezarri zen bibliotekako zerbitzua; orduan amaitu zen funtsen katalogazioa, eta erabilera eta garapenerako hainbat arau ezarri ziren».

Hona hemen eskaintzen dituzten zerbitzuak: informazio eta erreferentzia zerbitzua, monografia eta aldizkako argitalpenen kontsulta, mailegua, arau teknikoen eta argitalpenen salmenta, dokumentazio zerbitzua (legeak, arautegia), bibliografia, eman duten ikastaroen dokumentazioa, argitalpenen erosketa eta kudeaketa, datu base juridikoen kontsulta aretoan bertan, erreprografia zerbitzua eta katalogoaren kontsulta Interneten bitartez. Zentro batek argitaratu gabeko dokumentazio juridikoaren sarbidea eskaintzen du CENDOJ Dokumentazio Judizialeko Zentroaren bitartez, eta etorkizunerako, EAEko epaitegien jurisprudentzia guztia jaso eta erabiltzaileen esku jartzeko asmoa du.

Esan dugunez, ibilbide luzeko zerbitzuak dira, hemen aurkitu dugu ordea, dokumentazio zerbitzuaren etorkizunari buruz iritzi ezkor bakarra: «Liburutegiko etorkizuna zalantzazkoa da. Ez dago aurrekontu zehatzik arlo honetarako, eta elkargoko arduradunek ez dute interes handirik ageri zerbitzu beharrezko hau bultzatzeko eta zabaltzeko; horregatik, ematen du zerbitzua gutxitzen joango dela, eta gero eta esparru eta garrantzi gutxiago emango zaiola». Zerbitzuaren arduradunak garbi adierazi du elkargoko buruzagitzan ez duela aurkitzen bibliotekak behar duen sostengua.

Mendeko zentroak: Erakunde eta elkarteak

Zentro espezializatuak dira, erakunde baten beharrak betetzeko sortuak. Erakundearen arabera, publikoak zein pribatuak izan daitezke. Gure ikerketan parte hartu dutenek hiru alorretan lan egiten dute: kulturean, gizarte gaietan eta ingurugiroan. Batzuk barruko zerbitzuak dira, beste batzuek ordea, sarrera zabala eskaintzen diete adituei edota interesatuei. Langile kopurua batetik zazpita doa; elkarte batzuetan, ordea, dokumentazio zerbitzuan ez dago jardunaldi osoko profesionalik. Zaharrena Euskaltzaindiarena da, 1919koa.

Oso zentro desberdinak ditugu, dokumentazio zerbitzuak, liburutegi espezializatuak, informazio zentroak, artxiboak... Batzuk erakunde handien barruan daude, edota ikerketarekin lotura zuzena dute; adibidez, INRA, SIIS (Eguia-Careaga Fundazioa) —non dokumentu berrien %73 formatu elektronikoa jasotzen diren— edota IISJ Soziologia Juridikoko Oñatiko Nazioarteko Institutua —non katalogazioa eta analisi dokumentala ingelesez egiten diren—.

Beste batzuk, berriz, gizarte mugimenduek sortutakoak dira. IAN-ANI Arabako Natur Institutuko idazkariak honela erantzun zion gure galdetegiari: «Ez dakit gure bilduma apal honek zenbaterainoko interesa duen zuentzat. Gure institutuak, beste elkarte askok bezalatsu, diru iturri txikiekin jokatzen du: une honetan apenas erosten dugun material berririk. Den-dena boluntarioek egiten dugu:

horregatik ez dago lanposturik. Hala ere, Gasteizen leku gutxitan egongo da naturari buruz horrenbeste dokumentu eta erreferentzia liburu baturik».

Liburuak, aldizkariak, artikulak, erreferentzia lanak, literatura grisa, artxibo dokumentuak, erakundearen dokumentuak, txostenak, irudiak, soinu dokumentuak, multimediak, kartelak, eta abar jasotzen dituzte. Dokumentuak hizkuntza anitzetan daude, eta lan hizkuntza eta sortutako ekoizpenak gaztelaniaz, euskaraz (Euskaltzaindia, HABE, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Artxiboa), frantsesez edota ingelesez daude (IISJn, kasu). Eskaintzen dituzten zuzeneko aukerak hauek izaten dira: informazio eskariei erantzun, kontsulta aretoak, katalogorako sarbidea, liburuaren eta bideoen mailegua, zerrenda bibliografikoak, zentro berriei aholkularitza eman, dokumentuen kopiagintza eta erreprografia. Ondorengo zerbitzu hauek ere ematen dituzte sarri: buletin espezializatuak, dokumentu berrien bibliografiak, aurkibideen buletinak, legeen inguruko alertak, datu baseen sarrera, mailegua, bilaketa pertsonalizatuak, ikerketa zerbitzuak, bibliografien osaketa, informazioaren gaikako hedapena, atari tematikoak, argitalpenak, baliabide digitalak eta ikerketarako estekak.

Datu base dokumentalek, legeen datu baseek (legediaren hustuketa egin eta gero), albisteek edota prentsakoek osatzen dituzte, baita biografia, direktorio (zerbitzu eta gizarte zentroak, adibidez), Interneteko baliabideen gida, buletin elektronikoa, web orri, eta abarrek. Zentro batzuk sare bateko kide dira (emakumeena, Unescorena, Europako Dokumentazio Zentroena eta CEDIC Arena), eta, hala, informazioa eta baliabideak partekatzen dituzte. Hainbatetan, dokumentazioaz gain, beste zerbitzu batzuk ere ematen dira: formakuntza (baita praktiketako ikasleena ere); ikastaroak, webgunearen bidez; hitzaldiak; ikerkuntza; dokumentuen osaketa (taula estatistikoak eta mapak); memoriak; liburuxkak; argitalpenak...

Etorkizunerako, hauek dira dituzten erronkak: dokumentuak digitalizatu, katalogoak edota dokumentuak Interneten jarri, Interneteko guneak eta baliabideak kontrolatu eta webguneak berriro web 2.0ren ildotik. Zentro batek immigrazioaren inguruko thesaurus bat osatzeko asmoa duela ere adierazi du.

EMAITZAK

Aztertu ditugun dokumentazio zerbitzuak bi kategoria handitan bana daitezke: independenteak direnak, hau da, artxibo eta liburutegi handiak, eta beste erakunde baten barruan daudenak. Erakunde handiago horiek administrazioak, instituzioak, unibertsitateak, hezkuntza zentroak, ospitaleak, elkarteak, lanbide elkargoak, fundazioak, museoak, enpresak eta komunikabideak dira. Jabegoari dagokionez, aztertutako zentroen %55 publikoak dira; %43, pribatuak, eta %3k jabego mistoa dute. Era berean, zentroen %61 barne zerbitzuak dira, eta barruko erabiltzaileen beharrak betetzen dituzte soilik, kanpoko erabiltzaileerik onartu gabe. Gaiari begiratuta, oro har, kulturaren, gizarte gaien, industria eta teknologiararen, albisteen, osasunaren edota orotarikoaren inguruan lan egiten dute.

Zentroen sorrerari dagokionez, 1986tik 1990era bitartekoak izan ziren urterik emankorrenak; hain zuzen ere, informatizazioaren hasiera eta datu base dokumentalen loraldiaren sasoiak izan zenean. Horien ondoan, ikerketan ehun urte baino gehiago dituzten hiru liburutegik hartu dute parte. Bestalde, martxan jarritako zentro berriena 2006koa da.

Zentroen izendapena aldatu egiten da batetik bestera: *Dokumentazioa* da gehien errepikatzen den terminoa —47 agerraldi—; ondoren, *Liburutegia* dator —27 agerraldi—, eta, gero, askoz gutxiagotan, *Artxiboa* —13 agerraldi—. Terminok beren artean ere konbinatzen dira, eta *Dokumentazioa* eta *Biblioteka* 11 aldiz agertzen dira elkarren ondoan. Izendatzeko moduak askotarikoak dira, eta funtzioak ere sarritan horrela dira. Hala, dokumentazio, artxibo eta biblioteken funtzio tradizionalaz gain, ikertu ditugun zentroetan dokumentazio eta informazio baliabideen hezkuntzako funtzioak eta Wegunearen mantentzea ere ageri dira.

Zerbitzu gehienak neurri txikikoak dira: %29k langile bakarra dute, eta %71k, lau langile baino gutxiago; %19 zentrok lau eta hamar langile artean dauzkate enplegatuta, eta %10ek soilik dituzte hamar langile baino gehiago. Langileen artean emakumeak dira nagusi.

Dokumentazio zentroko langileek hezkuntza maila altua dute, %75ek unibertsitate ikasketak dituzte, horietatik %54 lizentziadunak dira, batik bat Historia eta Filologiako karreretan. Graduatu-ondokoak, %10 dira; horietatik %56, Bibliotekonomian eta Dokumentazioan; diplomadunak %11 dira, eta horietatik %36k diploma espezifikoa dute.

Ikusten denez, ikasketa espezifikokoak dituzten langileak oso gutxi dira; zalantzarik gabe, horren arrazoia da Euskal Herrian ez dagoela Bibliotekonomia eta Dokumentazio alorreko ikasketarik, ezta Kantauri aldean beste inon ere (25). Gabezia horrek ageriago uzten ditu lurraldeko unibertsitate publikoen eta pribatuen garrantzia eta beste edozein alorretako ikasketek duten garapen maila. Tradizionalki, jendea lanean bertan prestatu da, ikastaro laburren bitartez osatuz prestakuntza. Baina informazioko sektoreen konplexutasunak, dinamismoak eta ondorio sozioekonomikoek garbi uzten dute beste hezkuntza eredu batzuen beharra, ikerketarako bidea ematen dutenak eta unibertsitate hezkuntza espezifikoen bitartez bakarrik aurrera eramanez daitezkeenak (26). Gainera, Dokumentazioaren alorreko gabeziak eragin txarra dute Euskal Herrian egiten den ikerketaren garapen, ikusgarritasun eta balorazioan, eta hori arlo zientifiko guztietan, ez baitira garatzen beste hainbat tokitan dauden egitasmo aitzindariak adibidez, tesien digitalizazioan, biltegi digitaletan, ikerketa bibliometrikoetan, ikerketako produktzioaren promozioetan, webguneen garapenean...

Aztertu ditugun dokumentazio zentroetan, oro har, funtzioak, kategoriak eta langileen formazioa bat datoz, eta ez daude, adibidez, udal liburutegietan izaten diren desberdintasunak (27) (28). Hala ere, hainbat desoreka aurkitu ditugu unibertsitateko zentro batek eskaintzen dituen zerbitzuetan eta haren ordutegian eta duen langile kopuruan. Zentroak bekadun askoren laguntzarekin estaltzen ditu desoreka horiek. Hiru ospitale eta elkargo profesional batean ere atzeman dugu desoreka, ematen duten zerbitzuaren eta bertan lan egiten duen langile bakarraren kategoria profesionalaren artean, langileak administrazioko laguntzaile kategoria baitu.

Zentroek teknologia maila altua dute, barne erabiltzaileei datu baseak eta zerbitzuak eskaintzen zaizkie Intraneten bitartez, eta publiko zabalari edota erabiltzaile espezializatuari Interneten bidez eskaintzen zaizkio informazioa eta zerbitzuak. Dokumentazio zerbitzuen etorkizuneko egitasmo gehienak bide horretatik doaz: webguneen hobekuntza, kontsulta sistema intuitiboak, web 2.0 tresnen erabilera eta dokumentazio historikoa sarean ezartzea.

Administrazioen bultzadarekin osatutako katalogo kolektiboez aparte, beste kooperazio ekimen interesgarri bakan batzuk ere aurkitu ditugu, besteak beste, zentroyen sareak eta baliabideen aprobetxamendua osasun, ingurugiro, emakume, gazte, arte garaikide eta beste zenbait alorretan.

Ekimen horiek alde batera utzita, esan dezakegu sektorean erregulazioa falta dela, baita lidergoa aurrera eramango duten erakunde enblematikoak ere. Gabezia horri lotuta daude koordinazio falta, baliabiden sakabanaketa eta baita, sektorearen ikusgarritasuna eta eragin soziala eskasa izatea ere. Lan tresnetan normalizazio linguistikoa ere egiteke dago.

ONDORIOAK

Dokumentazioa sektore klabea da hezkuntza, ikerketa, berrikuntza, garapen kultural eta gizarte kohesiorako. Asko aldatzen ari den alorra da, osagai teknologiko handia du, eta ekonomiaren motorra izan daiteke. Euskal Herrian, baina, eremu hori inguruko beste tokietan baino gutxiago eta motelago garatzen ari da, eta horrek mugatu egiten du beste hainbat sektoretako hazkundea. Dokumentazioak aurrera egingo badu, botere publikoen lidergo ekimenak behar dira, ekimen legegileak eta arautzaileak, Biblioteka Nazionalaren sorrera eta sustapena, eta ekimen publikoak eta pribatuak bat egiteko gaitasuna. Behar-beharrezkoa da, halaber, unibertsitateko ikasketa espezifikoa ezartzea lurraldean, hezkuntza beharrei modu sistematikoan erantzuteko, eremu horretan ikerketak bultzatzeko aterabide bakarra baita.

BIBLIOGRAFIA

- (1) Agirreazaldeg, T.; Ronco, M.; Camacho, I. «Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio-zerbitzuen analisia». In Agirreazaldeg, T. (ed.); Camacho, I. (ed.). *Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan*. Leioa: UPV/EHU, 2009. 19-40 orr.
- (2) Agirreazaldeg, T.; Ronco, M.; Camacho, I. «Gida: Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio-zerbitzuak». In *Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan*. Leioa: UPV/EHU, 2009. 273-326 orr.
- (3) Agirreazaldeg, T.; Ronco, M.; Camacho, I. «El desarrollo de la documentación en los medios de comunicación del País Vasco» [linean]. In *Jornadas Españolas de Documentación* (11. 2009. Zaragoza). *Fesabid 2009 infogestión*. [Madrid]: Fesabid, 2009. 175-182 orr. <http://www.fesabid.org/zaragoza2009/> [Kontsulta: 2009/07/12]

- (4) Aranes, J.I.; Landa, C.; Plano, C.; Celaá, M. «Una propuesta de investigación: Informe sobre la Documentación en la Comunidad Autónoma del País Vasco (una aproximación 1993-1995)». In *Jornadas españolas de documentación automatizada* (5. Cáceres, 1996). *Sistemas de información*. Cáceres: Fesabid, 1996. 951-960 orr.
- (5) Aranes, J.I.; Landa, C.; Plano, C.; Celaá, M. «Informe sobre la Documentación en la Comunidad Autónoma del País Vasco». *Aldeezkaria*, 1996, ekaina, 3. zenb. <<http://www.aldee.org/>> [Kontsulta: 2000/05/06].
- (6) *Censo de archivos del País Vasco*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1986-1988.
- (7) *Censo de bibliotecas del País Vasco*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1989.
- (8) Informazio hauek M.^a Luisa Hermida Corchón, Direktorioaren arduradunak eman zizkigun 2009ko irailaren 23an izan genuen elkarrizketa telefonikoan.
- (9) Arana Palacios, J.; Olaso Val, A. «Legislación sobre bibliotecas: un estudio comparativo». *TK*, 1996, ekaina, 1. zenb., 43-53 orr.
- (10) Grupo de Biblioteca Vasca. «La Biblioteca Vasca». *Sancho El Sabio. Revista de Cultura e Investigación Vasca*, 1992, 2, 333-343. orr.
- (11) *Informazioa eta dokumentazioa Euskadin [baliabide elektronikoa]: profil profesionalaren analisisa*. [Vitoria-Gasteiz]: ALDEE, 2005. 1 CD-ROM. Sarean ere eskuragarri <http://www.aldee.org/cdi/>.
- (12) Luzuriaga, G. «Balance de la situación bibliotecaria vasca y perspectivas de futuro». *RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 2004, 49. liburukia, 2. zenb., 481-519 orr.
- (13) *Euskal Biblioteka Nazionala behar du*. Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia. Uztaritze, 1998ko ekainaren 5a <http://eibar.org/blogak/joana-albret/archive/1998/06/05/21/>
- (14) Cerdón García, J.A. *El registro de la memoria: bibliografías nacionales y depósito legal*. Gijón: Trea, 1997.
- (15) Fuentes Romero, J.J. *Las bibliotecas nacionales: un estado de la cuestión*. Gijón: Trea, 2003. 590 orr.
- (16) Juanena, A. «Biblioteka Nazionala Euskal Herriarentzat». *Jakin*, 142. zenb., 2004 mai-tza-ekaina.
- (17) Juanena, A. «Liburutegi Nazionalaren premiaz». Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko bloga, 1998ko urriaren 5ean. <http://eibar.org/blogak/joana-albret/>.
- (18) Lanbide elkargo bat osatzeko egitasmoa agertu berri dute Nafarroan.
- (19) Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegien katalogoa http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetclp/O9368/ID6d9c1d3a?ACC=101
Liburutegien direktorioa http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/eu/contenidos/informacion/directorio_bibliotecas/eu_direct/alava.html
- (20) Nafarroako liburutegi publikoen zerrenda http://www.navarra.es/home_es/Catalogo+de+servicios/Todos+los+servicios/popup/BibliotecasPublicas.htm
Nafarroako liburutegi publikoen katalogoa <http://www.navarra.es/AppsExt/opac/abnetcl.exe/O7018/ID68290623?ACC=101>
- (21) Katalogoa eta errepertorioa <http://ccfr.bnf.fr/portailccfr/servlet/LoginServlet>
- (22) Nekane Zurutuza Euskadiko Orkestra Sinfonikoko liburutegien hitzak.
- (23) Informatika Fakultateko eta Eskola Politeknikoko liburutegiak EHUko langile eta ikasleei sarbide osoa eskaintzen die, hau da, 50.000 lagunek dute erabiltzeko eskubi-dea, eta zentroetako bertako erabiltzaileak 3.000 dira.

- (24) Mondragon Unibertsitateko liburutegia Dialnet-eko kidea da. Errioxako Unibertsitateko bibliotekak sortutako aurkibide elektronikoen datu basea da Dialnet.
- (25) Díez Carrera, C. «La formación de los archiveros, bibliotecarios y documentalistas en España desde sus orígenes hasta la actualidad: balance y perspectiva». *Boletín de ANABAD*, 1. zenb., 2003ko urtarrila-martxoa, 123-138 orr.
- (26) Uriarte Gonzalo-Bilbao, E. «Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalak Euskadin. Lanbidearen testuingurua eta duela gutxiko historia». In *Informazioa eta dokumentazioa Euskadin [baliabide elektronikoa]: profil profesionalaren analisisa* [Vitoria-Gasteiz]: ALDEE, 2005. 1 CD-ROM. Helbide honetan ere eskuragarri <http://www.aldee.org/cdi/>
- (27) Kerexeta Zulaika, R.; Murgia Arrese, I. «Los profesionales vascos de archivos, bibliotecas y centros de documentación». In *Informazioa eta dokumentazioa Euskadin [baliabide elektronikoa]: profil profesionalaren analisisa*. [Vitoria-Gasteiz]: ALDEE, 2005. 1 CD-ROM. Sarean ere eskuragarri <http://www.aldee.org/cdi/>
- (28) «La situación de las bibliotecas públicas en Navarra», *TK*, 18. zenb., 2006, abendua, 10. orr. Editorial. Helbide honetan ere eskura daiteke: <http://www.asnabi.com/revista-tk/revista-tk-18>

III

Bizkaiko Foru Liburutegia eta aro digitala

Ana Ares Martínez

Funts Bibliografikoen Kudeaketa eta Foru Liburutegiko Sustatzeko Atalburua
Jefa de Sección Fondos Bibliográficos y Promoción de la Biblioteca Foral

Laburpena: 100 urte baino gehiagoko liburutegi honen ibilbidearen laburpen txiki bat. Liburutegia, xx. mendeko azken laurdenean aro digitalak ekarri dituen egitura eta abagune aldaketei aurre eginez, bere gestio, funts eta zerbitzuak informazio- eta ezagutza-gizartearen eskarira moldatuz doa.

Resumen: Biblioteca Foral de Bizkaia en el periodo digital. Breve resumen del camino recorrido por esta Biblioteca, de más de cien años, que en el último cuarto del siglo xx, y haciendo frente a los cambios estructurales y coyunturales que ha traído la era digital, moldea su gestión, fondos y servicios a las necesidades de la Sociedad de la Información y del Conocimiento.

0. SARRERA

Urteak pasatu ahala liburutegien funtzino eta rolak aldatuz joan dira, gizartea aldatzen doan antzera, baina aldaketarik jaso ez dauna da berezko dauan funtzinoa: erabiltzaileei informatzeko ardura.

Egun, Informazio Gizarte edo Informazio eta Jakite Gizartean, informazioak zeregin garrantzitsu bat dauka, ze giza jarduera eta aberaste generazioa, produktzio, manipulazio eta informazio erabileratik datoz. Interneteko zerbitzu eta produktuen garapenak aukera barri bat aurkezten deustoa sareari, jakitearen ekonomian oinarri hartuta.

Liburutegi publikoen zerbitzuen oinarrietan (2002) agertzen dan moduan, liburutegi publikoa da informazio eta jakite gizartearen atea.

Informazio gizartean dagozan ezbardintasunak eragin dabe informazioa jasotzeko ezbardintasuna, bai informazio heltzeko bidean, bai informazioari emon nahi jakon esanahian. Liburutegi publikoa oinarritzko eta beharrezko zerbitzua da, gizartearen oreka eta aukera bardinen arloan eginkizun garrantzitsua betetzen baitau. Beraz, liburutegi publikoak beharrezkoa dau sare elektronikoetan parte hartzea, informazio politikei eta teknologian aukera barriei moldatuz.

Liburutegi publikoari buruzko sarreratxua egin ondorik Bizkaiko Foru Liburutegia aurkeztuko deustuet.

I. BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

Bere funts fundazionala, Don Fidel de Sagarminagaren liburutegia da, ia 12.000 alegaz. Sagarminagaren liburutegia Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetan jausi zan, Sagarminaga hiltzean beraren senideek eskaini eutsielako. Aldundiak liburutegirik ez ebanez, funtsak, korporazino horrek eban egoitza baten jarri ziran, Bilboko Plaza Barrian.

1900eko uztailaren 31n Aldundiaren jauregi barria inauguratu zan, eta eraikuntza honen azkeneko pisuan jarri zan Sagarminagaren liburutegia. Beti be, azkeneko pisura heltzeko arazoak zirala eta, beheko pisura aldatu zan. 1907an amaitutako erreformakin areto barriak barruratu ebazan. Agiritegi eta liburutegia antolatzeko arduraduna Carmelo Echegarai jauna izan zan.

Edozelan be, urteen joan-etorriak Jauregia hastea ekarri eben, halandaze, liburutegiak betetzen eban tokia beharrezkoa zan beste behar batzuetarako, horregaitik 1921ean proiektu baten beharra sortu zan, eta jauregiaren atzean egoan eraikuntza, Aldundiarena zana, liburutegi, agiritegi eta moldiztegi probintziale-rako erabiltzea erabagi zan. 1921eko abenduaren 19an baietza emon eutsien Juan Carlos Guerra, arkitektoaren proiektuari, eta 1929ko abuztuaren 22an zabaldu zan. Garai haretan 2 sekzinotan: Baskongada eta Orokorra, banatutako 18.000 ale ebazan. Banaketa hori 1907. urteko lehen arautegian agertzen da, azalduz holan egin zala, idazle euskaldun batenak ziralako funts fundazionalak. 1909an Agiritegi-Liburutegiko lehen arduradunak, Dario de Areitiok, Baskongada sekzinoko katalogo bat argitaratu eban.

Eta aitatu beharra dago eraikuntza honek enkoadernatzeko departamentu bat eta argazki laborategi bat ebazala.

1965ean Liburutegian ikasteko gela bat jarri zan, geroago, 1988an, Foru Moldiztegiko lokaletan finkatu zana. Urte horretantxe banatu ziran Liburutegia eta Agiritegia, azken hau egun dagoan kalean jarriz; Maria Diaz de Haroko. Liburutegiko funts eta zerbitzuak hazten joiazanez, espazio birmoldaketa bat egin behar izan zan.

Hala eta guztiz be, urteak igaro ahala funtsak gehituz joan ziran eta, zerbitzuak gizarteko beharretara moldatu behar ziranez, 2003. urtean hasiera emon jakon erreforma eta hedapen proiektu bati. Lehiaketa horren irabazleak IMB taldeko arkitektoak izan ziran, eta euren lanen emoitza da egun daukagun Bizkaiko Foru Liburutegia. Eta eraikuntza honek ahalbidetu dau Informazino eta Jakite gizartearen nahi barriei aurre egin ahal izatea.

Nahiz eta leku aldaketa pila izan, ez dau aldaketarik jaso gizartearen zerbitzupan jartzeko espirituan, eta horregaitik erronka barriak, eta ikerkuntza eta konsebazino liburutegi batek dauazan behar barriei aurre egin deutse, egun zerbitzu honeek eskainiz:

- Lurralde informazinoa.
- Aldizkari ofizialak.
- Euroliburutegia.

- Ikasketa gela.
- Irakurketa eta kontsulta-gelak.
- Erreferentzi zerbitzua.
- Itsuentzako eta begietako urritasuna dabenentzako zerbitzua.
- Liburutegiko dokumentazino zerbitzua.
- Bibliografia eta heraldika.
- Kartografia eta grabatuak.
- Hemeroteka.
- Ikertzaileentzako gunea.
- Interneterako eta teknologia barriak.
- Liburutegien arteko mailegua.
- Argitalpenak.
- Wifi.

Eta web orrialdearen eraldaketagaz Erabiltzaileentzako Prestakuntza Zerbitzua jarriko da martxan.

Aurtengo programazino kulturala pasa dan urtekoa baino zabalagoa izan denez, horreetariko batzuen barri emongo dot jarraian:

- Irakurketa txokoa, zeinegaz irakurketa zaleak bildu nahi dira, euren sentsazino, pentsamentu eta esperientzien elkartrukea bideratzeko.
- Bizkaidatz II. saria.
- Ikastaroak.
- Erakusketak.
- Dokumentazino eta bibliotekonomian adituak diranen hitzaldiak.

Horreri buruzko informazino gehiago lortu nahi izan ezker, web orrialde honetara jo daitezue: <http://www.bizkaia.net>

Ez da erraza 100 urteko historiaren laburpena egitea, eta horrexegaitik aitamenez berezi bat egin gura neuke Liburutegiko funtsai buruz, batez be, eurek daben garrantziagaitik. Adibide legez:

- Inkunable bilduma, Funts zaharrak, Grabatuak eta mapak.
- Luis Luciano de Bonaparteren euskal eskuizkribuak.
- Liburutegi eta funts partikular batzuk bere dagoz: Marques de Villarías-en Liburutegi eta agiritegia (1953), Gregorio Balpardaren Liburutegia (1954), Ampuero (1966), Landeta, Arrizubieta... Irigoyen funtsak, Augustin Zubikarai, Jon Bilbao eta abar.

Horreri eta euskal funts eta hemerotekari esker, Euskadiko ikerkuntza liburutegi garrantzitsuenetariko bat bihurtu da.

II. BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIAREN DIGITALIZAZINO PROZESUA

Bizkaiko Foru Liburutegiak argi dauanez bere ondareak dauan garrantziaz, erabiltzailei sarrera errazteko, 1988. urtean bere katalogoaren automatizazioari hasiera emon eutsan.

Horretarako Dobis Libis programa aukeratu zan, grabaketa prozesu masibo bati hasiera emonez. Horregaz paper fisikoen oinarrizko datuak katalogora gehitu ziran (idazlea, izenburua, edizinoa, urtea), geroago sarrera printzipalak garbituz.

Hamabi urte geroago, 2000. urtean, automatizazio prozesuaren planteamentu barria egin zan, eta Innopac-Millennium, Innovativa Interface enpresarena, aukeratu zan, hainbat ikerketa eta ebaluazino egin oostean. 2001eko urtarrilean hasi zan, sistema barriaren programazinoa, katalogo bakar bat definituz (katalogo orokorra), eta 7 *scope* barneratuz (Sekzino orokorra, Baskongada, Erreserba patrimoniala, Kobie, Europar Batasuna, Bizkaiko legezko gordailua, Liburutegi digitala). Katalogoa kontsulta daikegu, euskeraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

Bizkaiko Foru Liburutegiak digitalizazio politika bat aurkeztu eban, kontserbazino karakterra lantzeaz gainera, berak eban patrimonio bibliografiko aberatsa, edozein erabiltzaileri aurkezteko ahalmenagaz.

Kontserbazino eta funts hedapena oinarritzat hartuz, digitalizazio prozesua bi puntu desbardinatetik garatu zan:

- Alde batetik 35 mm-ko mikrofilmetik hasiz, funts erreserba ziurtatzeko, hamar urtetan zehar, «liburu irekia» funtsa mikrofilmatu zan, beraren bi aurpegietatik, enkoadernatuak egozalako. Digitalizatzean mikrofilm fotograma bakotxa bi iruditan itzultzen da, esku ebaketaren bitartez. TIFF IV taldeak 300 kb/irudi (hirurehun kilobite irudiko) betetzen dau (biltegitratze behararen efektuen mende), eta 200 puntu, erresoluzino hazbete bakotxeko, bi koloretako (baltza eta zuria) irudia emonez.

Digitalizazinoa CD-ROMean prestatu zan ASCII «txt» fitxategi batez. CD bakotxak azpidirektorio egitura bat sortu eban. Azpidirektorio bat kode bakotxeko edo monografiaren erreferentzia topografiko bakotxeko, eta hareetara biltzen dira irudi guztiak. Azpidirektorioen izenburua jarri zan monografiaren erreferentzia topografikoagaz, baita erreferentzia egiten deutson orrialdeagaz (erreferentzia monografikoa \ alearen orrialdea.tif). CD-ROM horretan ASCII «txt» fitxategia sartu zan, erregistro bat irudi bakotxeko jarriz eta ondorengo datuak jasoz: \erreferentzia monografikoa \ irudi fitxategiaren izena luzapen tif barik \ dagoan CD-ROMaren etiketa (adibidea: R30\0000001\cd 000015).

Funts hemerografikoetan agertu daitekezan ezbardintasun teknikoetan, batez besteko okupazinoa aitatu behar dogu, honek 600 kb/irudi (biltegitratze efektuen mende) daukaz, TIFF IV talderako eta 300 puntuko erresoluzinoa hazbete bakotxeko.

Beste alde batetik, CD bakotxaren azpidirektorio egituran, badago direktorio bat, egunkariaren erreferentzia bakotxerako. Izenburua, egunkariaren erreferentzia, urte, hil eta orrialde zehatzagaz batera jarri zan (\egunkari erreferentzia \ urte

hil erreferentzia \ alearen orrialdea. tif) eta ASCII «txt» fitxategia \ egunkari erreferentzia \ urte hil erreferentzia \ irudi fitxategiaren izena tif luzapen barik \ dagoan CD-ROMaren etiketa.

- Beste alde batetik originaletik hasiz, Foru Liburutegiko mapa eta grabatu bilduma, originaletatik digitalizatzen ari gara eskuz, eskaner lauak erabiliz, eurak daben tamaina ezbardinakaitik eta euren garrantziagaitik, edonolako apurketa saihesteko asmoz.

Digitalizazioak kolorea eta JPG formatua daukaz, 300 ppp-ko erresoluzinoa-gaz. Digitalizatu ondoren, CD-ROMetan gordetzen dira, erabiltzaileak kontsulta daiezan, eta, Interneten arinago sartzeko, erresoluzino baxuagoko kopia bat dago. Dokumentuak honelaxe deitzen dira: \erreferentzia topografikoa \0000001.jpg.

Beraz, politika honeri eta programa informatikoak eskaintzen dauzan aukera barriari esker, martxan jarri zan Liburutegi Digitala.

III. LIBURUTEGI DIGITALA

Bizkaiko Foru Liburutegiaren liburutegi digitala *scope* edo sekzino jakin baten gaineko katalogoa da, eta kontsultatu daiteke, bai haren katalogo taldetik, bai zuzenean orrialde nagusitik. Hori ere lehen aitaturiko lau hizkuntzetan kontsultatu daiteke: euskeraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz. Eta kontsulta errazteko asmoagaz, tutoriala baimentzen dauan laguntza dinamikoko pantaila dauka.

Lehenago aitatu bezalaxe, irudiak digitalizatu ondorik, Bizkaiko Foru Aldundiaren web zerbitzariak ikusgarri dauz, Innovative zerbitzaria kargatu barik. Halandaze, irudiak zerbitzaritik kanpo dagoan disko baten gordetzen dira, espazio beharra egon ezker, oztoporik ez aurkitzeko. Irudiak CD-ROM edo DVDetan jartzen dira, eta windows esploratzailea eta digitalizatutakoa direktorio birtual bategaz egiten dira, liburu bakotxetik eskegita.

Kontsultak katalogotik egiten dira, digitalizatutako erregistro bibliografikoetan oinarrituz, bai katalogotik, bai liburutegi digitaleko *scopetik*. Horrenbestez, inprimaturiko signatura topografiko bategazlotura sortzean, Foru Liburutegiaren Inno-pac Millenium katalogoan irudiak sartzen dira. Horrela, katalogoa kontsultatzen dan bitartean, barneraturiko eta digitalizaturiko funtsai zuzeneko sarrera ematen jake.

Jarraian Liburutegi Digitalaren funtsak aitatuko dodaz:

- Inkunable bilduma, hau da, 1501. urtea baino lehenagoko inprimakiak.
- Foru Liburutegiko Erreserba Obrak, hau da, XVI, XVII eta XVIII. gizaldietako edizino inprimakiak.
- Eta egun, funts horreek ezeze, funts kartografiko eta grabatuak gehitzen ari jakoz.

Gaur egun Erreserba eta Kartografi Funtsa (jasotako azkena izan ezik, digitalizazio prozesuan dagoalako) kontsultatu daiteke, Liburutegi Digitaleko katalogo orokor eta *scopeen* bitartez; hori 12.000 ale eta 129 mapaz osoturik dago.

Liburutegi Digitalean kontsultatu daitekeen obrarik zaharrena, 1472 inguruko inkunabile dana, Johanez Gerson-ena, hain zuzen be, eta izenburu honen mendean: «De Simonia; De probatione Spirituum; De eruditione confessorum; De remediis contra recidivum peccandi».

Liburutegi digitalaren obra gehienak euskerazkoak, latinezkoak eta gaztelaniazkoak dira.

Nahiz eta oraindik gure Liburutegi digitalaren parte izan ez (ez dagoalako oraindik katalogoan sartuta), liburutegiko ekipoetan kontsultatu daitezke euskal hemerrotekatik 6 izenburu (*El Nervión, Euskalduna, Euskal Erria, Excelsior, Excelsius, Gaceta del Norte*) eta Luis Luciano Bonaparteren euskal eskuizkribuak.

Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza informatikodun enpresagaz, hau da, Lantik-egaz, batera, proiektu ezbardinetan lanean ari da gure liburutegia. Adibidez, hainbat Liburutegi Digitalen parte-hartzean, antxinako prentsarako bilaketa motoreak, metadatuaren inplementazioa... eta horrek guztiak ehun urte honetan izan dauan jokaera bardinagaz, hau da, berak dauan ondare bibliografiko aberatsaren eta liburutegi zerbitzuen hurbilketa, edozein tokitako erabiltzailei eskainitako zerbitzu birtualak eta tokian tokikoak.

IV

Euskomedia informazio sistema

Iñaki Arrieta Baro

Euskomedia Fundazioko proiektuen arduraduna
Responsable de proyectos de la fundación Euskomedia

Laburpena: Euskomediak euskal kultura eta zientziaren erreferente bat izan nahi du sarean. Horretarako hainbat dokumentazio bilgune sortu ditu: euskomedia.org (Añamendi entziklopedia, *Euskonews* aldizkaria, liburutegi digitala, dokumentazio eta argazki fondoak biltzen dituena), 3digitala.com irudi bankua, eta 2008an sortutako *Hedatuz*, Euskal Herrian egindako ikerketaren hedapena bultzatzeko OAI gordailua.

Gako hitzak: Liburutegi digitalak, euskal kultura, e-prints.

Resumen: Sistema de información Euskomedia. Euskomedia quiere ser un referente en la red de la ciencia y la cultura vascas. Para ello ha creado varios centros de documentación: euskomedia.org (la enciclopedia Añamendi, la revista *Euskonews*, revistas, fondos en los que se recogen fotos y documentación), el banco de imágenes 3digitala.com, y, extendiéndose en el 2008, el depósito OAI, para impulsar la expansión de las investigaciones hechas en el País Vasco.

Palabras clave: Bibliotecas digitales, cultura vasca, e-prints.

1. EUSKOMEDIAREN SORRERAZ

Euskomedia Fundazioa 2002an sortu zen Eusko Ikaskuntzaren ekimenez. Bere aurrekaria Mediateka izeneko zerbitzua izan zen, 1996tik Elren webgunea kudeatzen zuena.

Euskomedia euskal kultura eta zientziarekin zerikusia duten materialak digitalizatu eta sareratzeko sortu zen, bai Eusko Ikaskuntzak bai beste eragile kulturalak ekoiztutako dokumentazioa hain zuzen ere.

Helburu hori betetzeko ezinbestekoa izan da bai digitalizazio bai katalogazio lanak aurrera eramatea. Aldi berean, dokumentazio hori guztia gizarteratzeko asmoz hainbat webgune sortu ditu Euskomediak.

Komunikazio honen helburua da webgune horiek aztertzea, jasotzen duten materiala deskribatuz eta haien arteko harremanak azalduz. Bide batez, kudeatzen dituen fondoak hobeto ezagutarazteko Euskomediak etorkizun gerturako dituen asmo eta proiektuen berri ematen da.

2. EUSKOMEDIAREN ORAINAZ

Gaur egun bere sorrera helburuak betetzen jarraitzen du Euskomedia Fundazioak, hau da, euskal kultura eta zientziarekin zerikusia duten materialak digitalizatu eta sareratzea.

Horretarako hiru webgune nagusi kudeatzen ditu: euskomedia.org —gune nagusia eta informazio sistemaren bihotza—, 3digitala.com —irudi bankua— eta *Hedatu*z —OAI gordailua—.

Webgune hauetako bakoitzak bere zeregin propioa du, baina guztiak elkarlotuta daude eta zenbait ezaugarri partekatzen dituzte:

- Kalitate handiko digitalizazioa.
- Sareratzea baino lehen egindako dokumentazioaren tratamendu sakona, katalogazio zabal baten bitartez.

2.1. euskomedia.org

Gaur egun Euskomediak kudeatzen duen webgune nagusia euskomedia.org euskal kulturarako informazio sistema da.

Sistema hau hainbat dokumentu fondoek osatzen duten: Auñamendi entziklopedia, Euskonews aldizkaria, liburutegi digitala —Eusko Ikaskuntzak eta beste erakundeek argitaratutako liburu eta aldizkariak osatutakoa—, dokumentazio fondoak, eta abar. Banan bana aztertuko dugu bakoitza.

- **Bernardo Estornés Lasa - Auñamendi Entziklopedia:** «*Auñamendi*» *Euskal Herriko Entziklopedia Irudiztatu Orokorra* delakoaren bertsio digitalizatua. 150.000 artikulua baino gehiago jasotzen dituen entziklopedia historiko hau —1960ko hamarkadan hasi zen bere argitaralpena— eguneratze prozesuan dago 2001ean sarean jarri zenetik. Prozesu honek aurrera darrai gaur egun ere. Laster, gainera, aukeratutako zenbait artikulua euskaraz ere irakurtzeko aukera izango da.

URL: <http://www.euskomedia.org/aunamendi>

- **Liburu eta aldizkariak:** Fondo honetan Eusko Ikaskuntza eta bestelako eragile kulturalen bildumetan argitaratutako artikulua eta monografiak biltzen dira. Horietatik hamabi mila baino gehiago bere osotasunean daude eskuragarri. Hau da euskomedia.org-ek biltzen dituen fondoetatik liburutegi digitalik tradizionalena.

URL: <http://www.euskomedia.org/analitica>

- **Euskonews:** 1998az geroztik argitaratzen den euskal kultura eta zientziaren gaineko astekari elektronikoa. Bere webgune propioa izateaz gain —<http://www.euskonews.com>—, aldizkaria euskomedia.org informazio sisteman aurkitu daiteke. Honek bilaketa sinpleak nahiz aurreratuak egiteko aukera ematen dio Euskonewseko irakurleari.

URL: <http://www.euskomedia.org/euskonews>

The screenshot shows the Euskomedia website interface. At the top left, there is a logo for 'euskomedia fundazioa' and a vertical sidebar with 'EUSKAL' and 'FRANZES' labels. The main header reads 'Euskomedia Fundazioa, Euskal Kultura online'. Below this, there is a 'multimedia galeria' section featuring a crucifix image and the text 'ZUMAIA, Gipuzkoako kostaldeko herria' and 'ANÓNIMO'. To the right, a '2009eko apirilak 15' section lists 'Efemerideak' with dates and names like 'RUZ OPITZ, Maria Joséren jaiotza'. Below the gallery, there are several content tiles: 'Leizarraga Testament Berria', '3digitala Irudi bilduma berria', 'Monografikoa Juan Garmendia Larrañaga', 'Mapa Auñamendiko eduki guztiak eskura', 'Gipuzkoa 1915eko irudiak', 'RIEV Lehenengo mendeurrena', 'ADEVE Naturaren ahotsa', and 'Kooperatibak Arizmendiarieta Fonda'. At the bottom, there is a search bar with tabs for 'SINPLEA', 'ZEHATZA', 'AUDIOA', and 'IRUDIAK', and a search button labeled 'bilatu fondooan'.

1. irudia

euskomedia.org: hasiera orria

— **Agiri Fondoak:** Manuel de Irujo, Angel de Apraiz, Manuel Lekuona, José María Arizmendiarieta eta Ameriketako Euskal Erakundearen Federazioaren agiri fondoak. Pertsona eta erakunde hauen agiri fondoen katalogazioa topatuko dugu bertan, guztira hamar mila dokumentu baino gehiago biltzen direlarik. Zenbait kasutan —adibidez, Arizmendiarieta fondoko gutun hau: <http://www.euskomedia.org/fondo/15997>— dokumentu digitalizatua ere eskuratu daiteke.

URL: <http://www.euskomedia.org/fondo>

— **Euskal Kultura prentsan:** 1900 eta 1975 bitarteko Euskal Herri osoko egunkarietan bildutako euskal kulturaren inguruko prentsa berriak. Gainera, Eusko Ikaskuntzak 1936rarte jasotzen zuen prentsa txostena ere biltzen du, kasu honetan berria digitalizaturik jaso daitekelarik.

URL: <http://www.euskomedia.org/cultura>

— **Euskal kantutegia:** Bost mila partiturez osatutako kantutegia. Kantu bakoitzeko deskribapen zabal bat —izenburua, jasotze lekua eta data, letra, eta abar—, partitura, eta musika MIDI formatuan jasotzen ditu.

URL: <http://www.euskomedia.org/cancionero>

- **Multimedia galeria:** Hainbat argazki fondo —Eusko Ikaskuntza, Auñamendi, eta zenbait udal—, audioak eta bideoak biltzen ditu. Azken hauek oraindik gutxi dira baina ekoizpena geroz eta zabalagoa da.
URL: <http://www.euskomedia.org/galeria>
- **Jaien egutegia:** Euskal herrietako jai eta ospakizunen erregistroa.
URL: <http://www.euskomedia.org/calendario>
- **Euskal Bibliografia:** gaika sailkatutako hainbat bibliografia jasotzen ditu fondo honek. Bestek beste Erdi Aroko artea, Errenazimenduko artea, Arte Barrokoa, Historia Garaikidea, Erromanizazioa Euskal Herrian, Arrantza, Antropologia, eta abar.
URL: <http://www.euskomedia.org/bibliografia>

Argi geratzen da beraz, fondo hauetatik zenbait erreferentzialak direla, dokumentuaren kokapenaren berri baino ematen ez dutelarik. Honen adibide, *Euskal Bibliografia* fondoa litzateke. Beste kasu gehienetan, erreferentziaz gain dokumentua bere osotasunean jasotzeko aukera dago, bai fondoaren osotasunean —*Auñamendi* edo *Euskonews* kasu—, bai fondoaren zati batzuetan —*Liburu eta Aldizkariak*, *Agiri fondoak*—.

Ikus dezakegunez hainbat motatako dokumentu eta fondo ez osatutako liburutegi digital bat da [euskomedia.org](http://www.euskomedia.org), bere zentzurik zabalenean gainera, testuez gain irudia, bideoa, eta audioa ere jasotzen baititu.

Sistemara gehitzen den dokumentu bakoitza modu oso sakonean katalogatzen da. Modu honetan, erabiltzaileak informazioa hainbat daturen arabera bilatzeko aukera dauka: egilea, izenburua, laburpena, baita testu osoa ere dokumentua eskuagarri baldin badago.

2.2. 3digitala.com

Euskomedia Fundazioaren irudi bankua da 3digitala.com. 2009ko apirillean guztira 28.825 irudi biltzen ditu, hainbat egile eta gairen ingurukoak baina beti ere euskal kulturari lotutakoak: arkitektura, paisaia, jaiak, etnografia, eta abar.

Bere alderdi komertziala duen zerbitzu bat da 3digitala.com. Izan ere, bertan erakusgai dauden argazkiak erabili ahal izateko lizentzia bat ordaindu beharra dago.

Baina argazki horien kultur balioa ere azpimarratu nahi du Euskomediak. Horretarako argazki bakoitzaren deskribapena egiten da, alderdi kulturala azpimarratuz. Horrez gain irudiaren testuinguru kulturala ulertzen lagundu nahi da, Euskonews eta Auñamendi Entziklopedian harremana duten artikuluetara loturak eginez.

2.3. Hedatuz

Hedatuz —<http://hedatuz.euskomedia.org>— Euskomediak 2008an sortutako e-prints gordailu bat da. Nazioartean geroz eta gehiago dira mota honetako liburutegi digitalak, gure artean oraindik indar handirik ez badute ere.



Enskomedia Fundazioa

izena eman | pasahitza berreskuratu

IRUDIARIK
HIRRE KONTUAN
NOIA EROSI
HORTZUK GARRA

Klik ta klik Euskal Herrian barrena



Baionako Bonnat museoko lehenengo pisua (Lapardi).
[000422/4] Javier Juanes (Kudeatutako eskubideek)



Sahats Artxiboa
Ezagutu Nafarroako artsa eta inguruak



Kepa Etchandy
Iparraldeko sekulako argazkiak Kepa Etchandy-ren eskutik



argazkiak
28.825

ausazko irudia
Hauen arabera bila daitezke: gako-hitza, kontzeptua, irudien zenbakia, argazkilaria...

[bilakata zehatza](#)

SAILAK

- Artea
- Ekonomia
- Etnografia eta folklorea
- Pertsoniak
- Natura
- Paisajeak
- Material grafikoa
- Numismatika
- Ikurra
- sailik gabe
- Bibliografia materiala

BESTE AUKERAK

- > TOPONIMOAK
- > EGILEAK
- > SAILAK

ARGAZKILARIAK

Argazkilaria al zara?
Profesionala edo zaletua izanik Euskal Herriko aparteko irudiak al dituzu?

Zuk ere esku har dezakezu

eskatu informazioa

BUZOTIA

Bidal itzazu zure zalantzak, ideiak, iradokizunak, ...

HARREMANA | BALDINTZAK
info@3digitala.com
LEGEZKO OIBARRA | PRIBATASUN POLITIKA




2. irudia

3digitala.com: hasiera orria

E-prints gordailuen helburua erakunde baten barruan egindako ikerketa zientifikoaren emaitzak edo gai jakin bat jorratzen duten dokumentu akademikoak —artikuluak, tesiak, eta abar— biltzea da.

Dokumentu hauen hedapena errazteko OAI-PMH metadatuaren banaketarako protokolo berezia garatu zen. OAI-PMH protokoloa betetzen duten gordailuen kudeaketarako programen artean, *Hedatu*-ek EPrints softwarea —<http://www.eprints.org/>— erabiltzen du. Honek *Hedatu*-en dauden dokumentuak protokolo bera darabilten bilatzaileek oso modu errazean topatu eta indexatu ahal izatea ahalbidetzen du.

3. irudia

Hedatuz: hasiera orria

Orain arte *Hedatuz* gordailuan Eusko Ikaskuntzak argitaratutako aldizkarietako artikuluak biltzen dira. Epe ertainera, Euskomediak duen helburua beste eragile batzuek aurrera eramandako ikerketaren emaitzak jasotzea da.

3. EUSKOMEDIAREN ETORKIZUNAZ

2009 eraldaketa urtea izango da euskomedia.org webgunearentzako, goitik behera aldatuko delarik.

Alde batetik, diseinua berrituko da. Oraingoak urte batzuk baditu eta aldaketen beharrea dago. Webgunearen berritze hau ez da soilik estetikoak izango, egituraketa ere aldatuko da. Hasierako orriak erabiltzaileari informazio gehiago ematea bilatuko da, sistema osoan aurki daitekeen informazioaren adierazgarri bilakatuz.

Diseinu berriak, bestetik, informazio biltegien integrazioa bilatuko du. Orainartean euskomedia.org-en garrantzi handia eman zaio dokumentu batek sistema osoan duen kokapenari —zein dokumentu fondoren atal den hain zuzen ere—. Baina erabiltzaile gehienek nahi dutena informazio jakin bat da, informazio horren iturriari garrantzi handiegirik ematen ez dietelarik. Hori dela eta hemendik aurrera ez zaio horrenbesteko pisurik emango dokumentuen kokapenaren informazioari —eskuragarri jarraituko duen arren—, sistemari osotasuna ematea bilatuko delarik.

Eduki digitalen hedapenarekin eskura dugun informazio-bolumena izugarri hazi da eta bilaketak zaildu egin dira. Horren aurrean bilaketen teknologia asko garatu da, informazioaren atzipen eroso eta zehatza helburu. Gaur egun, *Google* eta *Yahoo* bezalako bilatzaileen garapenaren eraginez, bilaketen teknologia heldua da informazio-behar arruntentarako, dokumentu edo paragrafo batez asetzen diren beharretarako hain zuzen ere. Beste behar batzuetarako berriz gaur egungo teknologia ez da aski, galdera zehatzak erantzuteko edo informazioaren sintesia lortzeko (dokumentu anitzen sintesia batez ere). Arazoa areago korapilatzen duen ezaugarri bat eleanitzasuna da: askotan komenigarria edo ezinbestekoa da dokumentu eleanitzen artean bilatzea edo galderak hizkuntza desberdinetan onartzea. Azalduko dugunez helburu berri hauek lortzeko testuen interpretazio semantikoa ezinbesteko bitartekoa da. Edozein kasutan ez da nahastu behar testuen prozesaketa semantikoa eta web semantikoa. Lehena, hemen zabalduko duguna, hizkuntzaren tratamendu

automatikoarekin lotuta dago, bigarrena, berriz, dokumentuen egituraketa eta etiketatzearekin. Dokumentuen azterketa semantikoetan sakontzeko asmotan Kyoto izeneko proiektu bati ekin diogu EHU eta beste unibertsitate zein enpresaren artean.

Bilaketa-teknologia eta bereziki tresna linguistikoek egiten duten ekarpena azalduko dugu hasieran artikuluko honetan. Semantikaren azterketaren inguruan ari-tuko gara gero eta, bukatzeko, Kyoto proiektuaren nondik-norakoak azalduko di-tugu.

INFORMAZIOAREN BILAKETA ETA BERE ALDAERAK

Informazioaren berreskurapena (*Information Retrieval*, IR) ohiko arlo bat izan da informatikaren garapenaren hasieratik. Konputagailuek informazio kopuru handiak biltegitratzea posible egiten dutenez, informazio hori modu zehatz, eroso eta eraginkorrean berreskuratzea beti izan da aztergai garrantzitsua. Informazioaren berreskurapenaren kontzeptua testu-masa handien biltegitratze/berreskuratzearekin lotu ohi da informatikaren munduan [2]. Datu-base dokumentalak izan dira arlo honetako aplikazio garrantzitsuenak, eta bertan lantzen dira gaian gakoa diren bi urratsak: dokumentuen indexazioa eta ondorengo bilaketa.

Internet fenomenoak bultzatu egin du arlo honen garapena, testu digitalak izu-garri ugalduta direlako. IRren ohiko aplikazioez gain (testu legalak, medikuntza-koak, hemerrotekak, dokumentazio-zentroak...) Internet/Intranet eremuko aplikazio garrantzitsuenak kokatzen dira arlo honetan: *Google* moduko bilatzaileak eta *Yahoo* moduko direktorioak.

Duela gutxi arte, tresnen abiadura motela zela-eta, hizkuntza-ingeniaritzak ez du oso paper garrantzitsua jokatu arlo honen garapenean. Dena den, tresna linguistikoak hobetu diren heinean eta dokumentu digitalen eleaniztasuna areagotzearekin batera, tresna linguistikoaren erabilpena garrantzia hartzen joan da.

Ixa taldean¹ arlo honetan lan sakona egin dugu azken urteetan, ikuspegi elea-nitz batetik, baina euskararen gaineko bilaketaren problematikari erreparatu.

Bilaketaren teknologia azken urteetako teknologia arrakastatsua izan da. Inter-neteko zabalkundearekin batera bilatzaileak eguneroko tresnak dira jende asko eta askorentzat. *Google*² eta neurri txikiagoan *Yahoo*³ eta *bing*⁴ dira bilatzaile osoen eta erabilienak. Hizkuntza nagusiak baino ez dituzte kontuan hartzen eta, ondorioz, euskara bezalako hizkuntza flexiboentzat eta merkatu txikia dutenentzat arazoak daude ohiko bilatzaileetan. Horren aurrean bilaketako gaia desitxuratu (*energia*-ri buruz diharduten euskarazko dokumentuak bilatzeko *energia** eta du gakoak era-biltzea adib.) edo hizkuntza horretarako propio egindako bilatzaile bat erabiltzea

¹ <http://ixa.si.ehu.es>

² www.google.com

³ www.yahoo.com

⁴ www.bing.com

(euskarako *elebila*⁵) [4] dira aukerak. 1. irudian bilatzaile horien adibideak ikus daitezke.

Sistema hauen teknologia aski ezaguna da duela urte batzuetatik hona. Aurkitutako dokumentuak ordenatzeko garaian, dokumentuak duen edukiaz gain hainbat faktore hartzen dira kontuan: dokumentuak nondik erreferentziatzen dituzten, zenbat aldiz eta erreferentzia egiten duen gunearen esanguratasuna (*PageRank* algoritmoa [3] izan zen Google-ren arrakastaren hasierako gakoa). Informazio hori hipertestuaren topologiaren azterketaren bidez lortzen da. Hala ere, azken urteetan bilatzaileen arteko lehiakortasuna dela-eta, bilatzaileen barne-funtzionamenduari buruzko kaleratzen den informazioa murriztagoa da. Gainera, bilatzaileek webguneetara iristeko bide nagusi bihurtu diren heinean, enpresak saiatzen dira algoritmo horiei iskin egiten lehen postutan agertzeko (horri *search spam* deitzen zaio) eta bilatzaileek publiko ez diren neurriak hartzen dituzte horren aurka.

Emaitzak ebaluatzerakoan bi neurri erabiltzen dira doitasuna (*precisión*) eta estaldura (*recall*) [2]. Lehena eskuratutako dokumentuen esanguratasuna neurtzen du, hau da, eskuratutako dokumentuen artean zenbat dira esanguratsu edo interesgarri bilaketa-beharrerako. Estaldura, berriz, sistemaren eraginkortasuna neurtzen du, hau da, zeuden dokumentu esanguratsuen artean zenbat itzuli diren. Doitasuna kalkulatzeko erraza da, dokumentalista batek eskuratutako dokumentuak aztertu eta esanguratsuak zeintzuk diren markatuta. Estaldura neurtzea oso zaila da, bildumaren dokumentu guztiak begiratu beharko liriatekeelako, eta orokorrean modu erlatiboan neurtzen da, galdera beraren aurrean sistema batek beste batek baino dokumentu esanguratsu gehiago edo gutxiago itzultzen duenetz egiaztatuz.

Bilaketa-sistemetan gertatzen diren egoera arazotsuak honako hauek dira: galdera baten aurrean dokumenturik ez aurkitzea, edo erantzun gehiegi agertzea. Lehena konpontzeko estaldura handitu behar da, semantika erabiliz adibidez (ikusi geroago). Bigarrenari aurre egiteko emaitzak ordena egokian aurkeztea da gakoa, baina galderak fintzen laguntzeko tresnak ere badaude.

Dena den informazio-beharra dokumentu edo paragrafo baten eskurapenetik hara doanean gaurko teknologia ez da aski, bilaketaren eta inguruko arloetan azken urteetan aurrerakuntza nabarmenak egon diren arren. Gaiarekin lotuta honako teknika hauek azpimarra daitezke:

- CLIR (*Cross-Lingual IR*): bilaketa eleanitzean galderak eta dokumentuak hainbat hizkuntzatan egon daitezke eta bilatzailea gai izan behar da hizkuntza desberdinetako dokumentuak erlazionatzeko [6]. Hiztegi bat nahikoa izan daiteke horretarako, baina itzulpen automatikoa gero eta gehiago erabiltzen da.
- QA (*Question Answering*): dokumentuak bilatu beharrean erantzun zehatzak lortu nahi dira sistema hauetan (nork, non, zergatik...). Helburu horrekin dokumentuen prozesaketa sakonagoa behar da, hizkuntza-teknologiak

⁵ www.elebila.com

ezinbesteko tresna izanik. Emaitzak oraindik ez dira oso ikusgarriak baina ikerketa handia egiten da arlo honetan.

- Bilaketa multimodala: digitalizazioa dela-eta, dokumentuak bilatzeaz gain, argazkiak, irratiko edo telebista/bideoko programak bila daitezke. Bilaketa-sistema hauek metadatuetan (fitxa dokumentala) oinarri daitezke edo bes-telako teknketan (inguruko testua argazkietarako, ahots-testu bihurketa, etab.); eta askotan metodo konbinatuak dira egokienak. Gai hau artikulu honen esparrutik kanpo geratzen da.
- Dokumentuen sintesia: beharra asetzeko emaitza ez da dokumentu bat, do-kumentu batzuetan adierazitakoaren sintesia baizik. Pentsa dezakegu pro-dukto batez galdetzen dugunean dokumentu (eta agian hizkuntza) anitze-tan produktu horri buruz esaten diren gauza interesgarrienak lortu nahi di-gugula.

TRESNA LINGUISTIKOAK BILAKETARAKO APLIKAZIOAK

Hizkuntza-ingeniaritza arloko tresna linguistikoek bilatzaileen doitasuna edota estaldura handitzen lagundu dezakete, batez ere hemerroteketako zein liburutegi di-gitaletako bilatzaileetan. Konplexutasunaren arabera aurkeztuko ditugu, atal bakoi-tzean oinarrizko teknologia eta aplikazioa azalduz.

Morfologian oinarritutako tresnak

Oinarrizko teknologia hitza-lema erlazioa bilatzea da. Analisia esaten zaio hi-tzetik lema edo forma kanonikoa (hiztegiko sarrera) lortzen duen eragiketari, eta sorkuntza lematik bere forma posible guztiak lortzen dituenari. Flexio handiko hizkuntzetan tratamendu morfologikoa ezinbestekoa da estaldura oso txikia ez izateko.

The screenshot shows the BILATU search engine interface. At the top, there are language options (eu | es) and navigation links (Txertatu nabigatzailearen tresna-barran, Permal, Laguntza, Hori buruz). The search bar contains the text "bilaketa aurreratu" and "Hobespenak". Below the search bar, there is a "BILATU" button and a "BILAKETA AURRERATU" button. The search results section shows "Arabic Phonology" by F. Coromilas, Inaah Ouarfaly, and Dawood, published in 1977. The page also features a Google Scholar logo and a search bar with the text "diachronic linguistics".

1. irudia

Galdera zuzentzeko proposamenak

Bilatzaileetan prozesaketa morfologikoa bi modutan egin daiteke. Lehenengoan indexatze-prozesuan hitzen orde, edo hitzekin batera, lema gorde egiten dira indizeetan. Bigarrenean hitzak gorde egiten dira, baina bilaketa egitean sorkuntza egiten da, sortutako hitz guztiak bilatuz, *edo* eragileaz konbinaturik.

Teknologia linguistikoaz egin daiteke (lema, aurrizkiak, atzizkiak, paradigmak, aldaketa fonologikoak, etab. erabiliz), edo hurbilpen sinpleago batez, azken kasu horretan *stemming* edo sasilematizazioa esaten zaio eragiketari. Bilatzaile handietan sasilematizazio sinplea erabiltzen da, baina euskararen kasuan arrisku-sua izan daiteke doitasun-galera handi sor daitekeelako.

Aipatutako *elebila* bilatzaileak morfologia integratuta du sorkuntzaren bidez [4]. Beraz, hitz bat ematen dugunean bilatzeko bere lema forma guztiak (edo garrantzitsuenak) sortzen dira estaldura egokia ziurtatzeko.

Horrez gain, morfologia eta estatistika konbina daitezke galderetan erroreak detektatzeko eta proposamen egokiak emateko, 3. irudian ikus daitezkeen moduan.

Sintaxian oinarritutako aplikazioak

Testuen analisi sintaktiko sakona konputagailuz egitea ikergaia da gaur egun. Dena den analisi partzialak lortzen dituzten programak oso hedatuta daude eta ondo funtzionatzen dute. Orokorrean IR arloan izen sintagmak bilatzen dira, informazio garrantzitsua eskaintzen dutelako: termino berriak, pertsonak, enpresak/era-kundeak, tokiak...

Oinarrizko elementu horiek eta estatistikak konbinatuz aplikazio interesgarriak sor daitezke, dokumentuak estekatuz edo multzokatuz adibidez. Gainera erantzun gehiegi itzultzen dituzten galderak fintzen lagun dezakete aplikazio horiek.

Horren adibideak dira www.clusty.com, www.quintura.com, www.kartoo.com webguneak. Horietako batzuetan emaitzak erabiltzen dira bistaratze bereziak egiteko (multzoak, erlazioak...).

Euskarazko guneen artean www.zientzia.net aipa dezakegu, lematizazioa eta multzokatzea integratzen ditu-eta.

Eleaniztasuna. CLIR

Aplikazio eleanitzak egiteko hainbat aukera daude: hiztegi elebidun digitalak, ontologia eleanitzak eta itzulpen automatikoa. Ontologia eleanitzaren adibide gisa hurrengo atalean azalduko den *WordNet* dugu. Itzulpen automatiko zehatza [6] aspaldiko amets betegabea da, baina azken urteetan aurrerapen handiak egin dira, batez IR sistemetan integra daitezkeen sistema arin eta azkarren aldetik. Doitasuna ez da oso handia, baina aplikazioaren helburua itzultzea ez denez kalitate onargarria izan daiteke IR aplikazioetarako. Antzekotasun handiko hizkuntzen artean itzultzeko edo baliabide asko duten hizkuntza nagusien artean itzultzeko, gaur programa nahiko zehatzak daude.

Euskararen kasuan, oraindik gauza asko egin behar dira baina gaztelaniatik euskara itzultzen duen lehen sistema dago eskuragarri⁶. Kalitatea oraindik ez da egokia itzulpen profesionalean erabiltzeko baina halako aplikazioetan erabil daiteke. 2. irudian adibide bat ikus daiteke.

The screenshot shows a web browser window displaying the OpenTrad website. The browser's address bar shows the URL: <http://www.opentrad.org/demo/bs/nabigatzailea.php?language=eu>. The page content is in Spanish and features several news items:

- Ratzinger: beldurraren estrategia**: Article about Pope Benedict XVI's visit to Mexico.
- Dick Cheney Irak-era iristen da ustekabe bisitan**: Article about Dick Cheney's surprise visit to Iraq.
- Recomendada berriak kontsulta egin ditzan**: A section for recommended news.

The right sidebar contains a section titled 'Orrialde hau izena aipatzea' (Cite this page) and a list of names under 'Berria da:' (News is:).

2. irudia

Opentrad itzultzailearen adibidea

CLIR egiteko hainbat diseinu egin daitezke, bilduma hizkuntza bakar batean egotea, baina galderak edozein hizkuntzatan egin ahal izatea; galderak hizkuntza bakar batean baina dokumentuak eleanitzak izatea, edo aurreko bien konbinazioa, galderak eta dokumentuak eleanitzak. Are gehiago, argazkien edo bideoaren gaineko bilaketa eleanitza egin daiteke.

Horretarako hainbat aukera daude, galderak edota dokumentuak itzultzea hitzez hitz hiztegien bitartez, edo itzultzea itzulpen automatikoaren bidez. Aukera gehiago daude, ontologia batera proiektatu daitezke galderak eta dokumentuak. Kasu horretan bilaketa semantikoaz hitz egin daiteke.

⁶ www.opentrad.com

The screenshot shows a Google Translate search interface. The search query is "rock concerts in Moscow". The translated text is "рок-концерты в Москве". The search results are categorized as "Translated results from Russian web pages" and show three results:

- English translation:** Poster **Rock Concert Moscow - Rock Video On-Line - Playbill**. Posters **rock concert rock concerts Moscow** concert by the **rock band Surrounding rock:concert poster clubs in Moscow rock concert poster punk punk rock concert metal concerts...**. www.rock-video.net/afisha.htm - 31k - [Cached](#)
- Original Russian:** Афиша **Рок Концертов Москва - Rock Video On-Line - Афиша**. Афиша **рок концертов Рок концерты москва Концерт рок группы Ближайшие рок концерты афиша клубомосквы рок афиша панк концерт панк рок концерт метал концерты ...**. www.rock-video.net/afisha.htm - 31k - [Сохранено в кэше](#)
- Tickets for the concert poster and concerts in Moscow 2009 - rock and...**. Order biletov **concerts Moscow 2009**, poster, **rock concerts** in the Olympic. www.hotconcert.ru/ - 31k - [Cached](#)
- Билеты на концерт и афиша концертов в Москве 2009 - рок и ...**. Заказ билетов на **концерты москвы 2009**, афиша, **рок концерты** в Олимпийском. www.hotconcert.ru/ - 31k - [Сохранено в кэше](#)
- Poster concerts rock bands in clubs of Moscow - the best concerts in...**. Every day in the clubs of **Moscow** goes through many of **concerts** and of course the lion's share of them are **rock concerts** of groups. Gigs in clubs in **Moscow** allow... www.hotconcert.ru/events/20/ - 26k - [Cached](#)
- Афиша концертов рок групп в клубах Москвы - лучшие концерты в ...**. Каждый день в клубах **Москвы** проходит множество **концертов** и конечно львиная доля из них это **концерты рок групп**. **Концерты в клубах в Москве** позволяют ...

3. irudia

Translated Search funtzioaren adibidea


Eleaniztasunean oinarritutako aplikazioen adibide gisa 3. irudiko adibidea dugu Googleren *Translated Search* delakoa itzulpen automatikoan oinarrituta dagoena.

SEMANTIKA. BILAKETA SEMANTIKOA

Bilaketa semantikoaren bidez hitzen bidezko bilaketan dauden arazo biri erantzun nahi zaie: adiera anbiguotasuna batetik (*baso* bilatzen badugu arbolen basoa edo edateko basoari buruzko dokumentuak atzitzeko genituzke), eta sinonimia edo espezializazioa bestetik (*jatetxe* bilatzen badugu, *sagardotegi* edo *erretegi* hitzak azaltzen diren dokumentuak ez genituzke lortuko). Bilaketa kontzeptuen bitartez egingo balitz, bi arazo horiek arinduko lirateke. Problema bat dago, tratamendu semantikoa nahikoa zehatza ez bada estaldura handitu arren doitasuna galdu egiten dela.

Orokorrean kontzeptuen inbentario diren ontologiak eleaniztunak balira, orduan hizkuntzen arteko bilaketak ere hobeto egingo lirateke, kontzeptu gehienak konpartitzen baitira hizkuntzen artean. Web 2.0 delakoan erabiltzen diren folksonomiak ez bezala, analisi semantikorako taxonomia eta ontologia formalagoak erabili ohi dira, eta horien artean *WordNet* (Ingeleserako ontologia elebakarra) eredu

jarraitzen duten wordnet eleaniztunak dira erabilienak, IXA taldean beste erakunde batzuekin elkarlanean landu den *Multilingual Central Repository* (MCR) kasu [1]. MCR delakoak ingelera, gaztelera, italiara, katalanera eta euskara biltzen ditu bere baitan. Bertan hizkuntzetatik independente izan nahi duen kontzeptu inbentario bat dago, eta kontzeptu horiei buruzko informazio semantiko aberatsa jasotzen da, taxonomia egiturak barne. Azken urteetan egindako ikerketari esker, kontzeptuei buruzko hainbat informazio sartu izan da MCRen. Beheko irudian euskarazko baso-ri dagozkion bi adiera azaltzen dira, beste hizkuntzako itzulpenekin batera, eta kontzeptuaren hainbat tasun semantikorekin batera (adibidez, gizakiak egindako dela edateko basoa, edukitzeko ontzi baten propietateak dituela, instrumentu bezala erabili daitekeela, etab.). Hurrengo irudian azaltzen dira ere




4. irudia

WordNet interfazearen adibidea (*glass-edalontzi*, *baso*)

KYOTO PROIEKTUA

Asia eta Europako hainbat erakunderen artean garatzen ari den KYOTO proiektuaren (www.kyoto-project.eu) helburua ezagutza modelatzeko eta gertaerak identifikatzeko plataforma bat garatzea da [7]. Garapena komunitatean oinarrituta dago eta hizkuntzen eta kulturen artean erabilgarri izan dadin diseinatu

da. Wiki sisteman oinarrizten den plataformaren bitartez erabiltzaileek domeinu zehaztutako terminologia adostu dezakete, terminoen erauzketa dokumentu eleantzetatik modu automatikoan lortu eta gero. Adituek termino horiek aldatu, aberastu eta erlazionatu ditzakete. Programen eta adituen lanaren ondorioz ezagutza-egitura konplexuak sortzen dira, hizkuntzarekiko neutralak direnak eta ezkutuan geratzen direnak, baina erabil daitezkeenak testu-bilduma berriak ustiatzeko eta bertatik gertaerak inferitzeko.



5. irudia

Tybot-aren emaitza

Gertaeren datu-base bat sortuko da erabileraren ondorioz eta gertaera horietan zehar bilaketak egin eta nabigatu ahal izango dute erabiltzaileek. Sistema zazpi hizkuntzatarako garatzen ari da eta ingurumena da landutako domeinua, baina beste hizkuntzatarako edo domeinutarako da hedagarria.

Hizkuntzen eta kulturen arteko elkarrengiketa lortzeko partekatutako ontologia bat erabiltzen da, zeinaren bitartez hitzak eta espresioak estekatzen diren. Ontologia errepresentazio formal eta hizkuntzatik independentea da, inferentziarako zein arrazoinamendurako erabil daitekeena. Wiki ingurune baten bitartez lankidetzatresna bat garatu da erabiltzaileek erauzitako informazioa gainbegiratu eta edita de-

zaten. Informazioaren erazketan aurretik definitutako ontologia eta berari estekatu-tako espresioak erabiltzen dira patroio ontologiko izeneko predikatuak erabiliz.

Sistema martxan jarri baino lehen adituen informazio-beharrak aztertu dira. Hauexek dira adibideetako batzuk (ingelesez):

- *Which are the most suitable areas in Europe for pro biodiversity business?*
- *What are the key biodiversity indicators in a certain area?*
- *What is the effect of hedgerows on air quality?*
- *What is the impact of dogs on wildlife?*
- *Are there huge negative effects with regard to eco-networks and alien invasive species?*

Ikus daitekeenez espresioetan termino konplexuak (*pro biodiversity business, biodiversity, eco-networks, alien invasive species*) eta erlazio kausalak (*indicators, impact, effect*) agertzen dira. Ohiko bilatzaileetan arazoak daude galdera hauetara erantzun gisa emaitza interesgarriak lortzeko. Kyoto proiektuaren helburua horixe da, gai zehatz baten inguruko galdera konplexuei erantzun egokia ematea. Horretarako hiru helburu lortzeko lanean gaude:

Osatu den testu-bildumatik terminologia eta kontzeptuak hartzen dira automatikoki. Hau egiteko *Tybot* izeneko osagaia eraiki da.

Wikyoto izeneko wiki plataforma bat eratu da adituek hizkuntza eta kulturen artean terminoen eta kontzeptuen esanahia adostu eta argi dezaten. Plataforma honen bitartez adituek terminoen hautapena egin eta sare semantikoan kokatu dezakete, geroago ezagutza hori partekatutako ontologian integra dadin.

The screenshot displays the Wikyoto Knowledge Editor interface. At the top, the browser window title is 'KYOTO Project - Wikyoto Knowledge Editor - Mozilla Firefox'. The address bar shows the URL 'http://www.group.it.cnr.it/demos/Wikyoto_Term_Editor/Term_Editor.php'. The interface is divided into several panels:

- Search for a term:** A text input field with the placeholder 'Type the term you want to search for...'.
- Browse KYOTO Term Hierarchies:** A tree view showing a hierarchy of terms starting with 'frog', including sub-terms like 'endemic frogs', 'forest frog', 'common frog', 'poison frog', 'golden poison frog', 'gopher frog', 'Dusky gopher frog', and 'bullfrog'.
- Browse Domain WordNet Hierarchies:** A tree view showing a hierarchy of terms starting with 'any of various tailless stout-bodied amphibians', including sub-terms like 'endemic frogs (3) frogs that live in...' and 'bullfrog (1) amphibian showing...'.
- Selected terms:** A section showing 'frog' with a table of WordNet pointers. The table has columns for 'LOAD', 'Lexicon', 'Sense', 'Doc. occurrences', 'SHOW OCC.', and 'Gloss'.

LOAD	Lexicon	Sense	Doc. occurrences	SHOW OCC.	Gloss
LOAD	PWN00	01829785-n	7	SHOW	[frog, toad, toad frog, anuran, batrachian, s...
LOAD	PWN00	09170045-n	7	SHOW	[frog, Gaul] (n) a person of French descent
LOAD	PWN00	03390362-n	7	SHOW	[frog] (n) a decorative top of bread or cord
- System: any of various tailless stout-bodied amphibians:** A section showing a lemma 'frog' with its internal and external references.

Lemma	Internal ref.	External ref.
ADD Lemma		
DELETE	Lemma	Sense number
DEL	frog	2

6. irudia

Wikyoto-aren itxura

Testu-erazketarako tresna eleanitz ahaltsu batek terminologia eta ontologia erabiltzen du testu bildumetatik informazio eta gertaera esanguratsuak lortzeko. Aurrekoaren ondorioz datu-bilduma partekatu bakarra sortzen da, bertan bilaketen eginbeharra modu adimentsuan burutu ahal izateko. Tresna honi *Kybot* deritzo.

Bistan da urrats horietan semantika gunea dela. Semantikan oinarritutako prozesaketa aurrera eramateko lau osagai integratzen dira:

- Hizkuntza/kulturari dagokion Wordnet-a, terminoak eta erlazioak jasotzen dituena.
- Termino horien definizioa ontologian, kontzeptu abstraktuak terminoekin lotzeko.
- Kontzeptuen definizioa, hizkuntzatik eta kulturatik neutrala dena.
- Hizkuntzarekin lotutako terminoak eta hizkuntzatik independenteak diren kontzeptuak lotzeko moduaren definizioa.

Gaur egun proiektua erdibidean dago eta oraindik ez dago emaitzarik. Edozein kasutan aipatutako elementu nagusien prototipoak eraiki ditugu eta test fasean daude.

ONDORIOAK

Artikuluaz azaldu dugunez, teknologia linguistikoak, tartean semantika, ekarpen handia egin dezake dokumentu digitalen bilaketen arloan. Bilatzaile orokor ezagunenetan oraindik gutxi erabiltzen badira ere, erabilera handitzen doa, orokorrean estaldura handitzeko oso tresna interesgarriak direlako. Tresna linguistiko hauek (sintaxia, itzulpena, semantika) ez dira maizago erabiltzen oraingoz ez direlako nahiko eraginkorrak, prozesaketa-denboraren aldetik, prozesatzeko behar den memoriaren aldetik edo doitasunaren aldetik.

Dena den gero eta gehiago erabiltzen ari dira, eta aipatutako mugak gainditzeko helburuarekin hainbat ikerketa egiten dira, tartean Kyoto proiektua, zeinaren bitartez ezagutza sakona behar duten informazio-behar konplexuei erantzun egokia eman nahi zaion.

BIBLIOGRAFIA

- [1] Agirre E., Alegria I., Rigau G., Vossen P. 2007. MCR for CLIR. *SEPLN aldizkaria, monografia TIIMM*. vol 38, 3-16. ISSN 1135-5948. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1174895701/publikoak/pdf>
- [2] Baeza-Yates R., Ribeiro-Neto B. 1999. *Modern Information Retrieval*. ACM Press Series/Addison Wesley, 1999
- [3] Brin S., Page L. 1998. *The anatomy of a large-scale hypertextual Web search engine Computer Networks and ISDN Systems*, Elsevier.
- [4] Leturia I., Gurrutxaga A., Areta N., Alegria I., Ezeiza A. 2007. «EusBila, a search service designed for the agglutinative nature of Basque». *SIGIR2007- iNEWS'07 workshop*. ISBN

- 978-84-690-6978-3. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1190627800/publikoak/pdf>
- [5] Mayor, A. 2007. *MATXIN: Erregeletan oinarritutako itzulpen automatikoko sistema baten eraikuntza estaldura handiko baliabide linguistikoak berrerabiliz*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitateko; Donostiako Informatika Fakultatea. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Tesiak/1196444990/publikoak/Matxin2007.pdf>
- [6] Saralegi X., Alegria I. 2007. «Similitud entre documentos multilingües de carácter técnico en un entorno Web». *SEPLN aldizkaria, 2007*. Sevilla. ISSN 1135-5948. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1184248312/publikoak/pdf>
- [7] Vossen P., E. Agirre, F. Bond, W. Bosma, C. Fellbaum, A. Hicks, S. Hsieh, H. Isahara, Ch. Huang, K. Kanzaki, A. Marchetti, G. Rigau, F. Ronzano, R. Segers, M. Tesconi: «KYOTO: a Wiki for Establishing Semantic Interoperability for Knowledge Sharing across Languages and Cultures», in: *Handbook of Research on Culturally-Aware Information Technology: Perspectives and Models*. IGI Global USA.

IXA taldea

Lang: eu | en

Nor gara?

- Etvera
- Aurkezpena
- Kideak

Zer egiten dugu?

- Ikerlerroak
- Argitalpenak
- Produktuak
- Proiektuak
- HAP masterra

Beste batzuk

- Estekak
- Lanpoltsa
- Karrera bukaerako proiektuak
- Pribatua

HIZKUNTZAREN AZTERKETA ETA PROZESAMENDUA MASTERRA

Kontaktua

Ixa Taldea
649 Posta kutxa
20080 Donostia
ixa@ehu.es

Euskal Herriko Unibertsitatea

IXA taldea
Hizkuntzaren prozesamendua

Bilatu nahi duzun

Hemen zaude: Ixa

PIL-PILEAN

Udako ikastaroa: Hizkuntzen kudeaketa mundu global batean **2010-Uzt-01**

Laponiako samiera hizkuntza eta euskara lankidetzan aztertzen **2010-Eka-28**

Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua. Master ofiziala **2010-2011 2010-Eka-18**

CLARIN proiektuaren bilera Euskal Herriko agenteekin **2010-Eka-14**

Berri gehiago ikusi

<http://ixa.sii.ehu.es/ixa> (1 de 2)15/09/2010 14:21:21

IXA taldea

Aurkezpena

IXA taldea Euskal Herriko Unibertsitateko ikerkuntza-taldea da, hizkuntzaren tratamendu automatikoa lan egiten duena. Momentu honetan taldeko kideak 43 gara: 32 informatikari, 8 hizkuntzalari, 2 ikerkuntzarako teknikari eta administrari bat. Gehienak Donostiako Informatika Fakultatean aritzen gara, baina beste zentro batzuetan ere bai (Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskola, Donostiako Irakasle Eskola...)

Argitaratu ditugun [artikulu guztiak](#) ikus ditzakezu webgune honetan, baita gure [proiektuak](#), [baliabide linguistikoak](#), [produktuak](#)...

Sortu ditugun produktu ezagunenak hauek dira: [Xuxen](#) zuzentzaile ortografikoa, [OpenTrad](#) itzultzaile automatikoa, Euskal WordNet sarea eta [ZT](#) eta [EPEC corpusak](#).

Esku artean ditugun proiektu nagusiak hauek dira: [KYOTO](#) Europako STREP proiektua; Eusko Jauriaritzaren [A motako ikertalde finkatua](#); M.E. C.eko [IMLT](#), [OpenMT-2](#) eta [KNOW2](#) proiektuak eta [TIMM](#) eta [RTH](#) ikerketa-sareak. Ikus [hemen](#) proiektu guztien lista 1988tik.

 [Gehiago irakurri](#)

Proiektuak



A motako ikertalde finkatua

TIMM OPENMT²

KNOW²



IMLT

XII

Informazio kudeaketa, sindikazioaren eta tresna folksonomikoen bidez

Gorka Julio

Elurnet enpresako ingeniari teknikoa
Ingeniero técnico de la empresa Elurnet

Laburpena: Sindikazioa aspalditik erabilgarri bazegoen ere, ez da blogen ez-tanda iritsi arte hedatu. Orain esparru hori erabat gainditu du, eta Interneteko leku gehienetan aurkitzen dugu sindikatzeo aukera. Horrek informazio iturri ugari-tan harpidetzeko aukera ematen digu, betiere informatuak egon gaitezen. Gero eta garrantzitsuagoa da informazioaren kudeaketa egokia egitea. Gure esparruko berriak ezagutu, gure enpresa, talde, elkarteari buruz esaten dena ezagutu, alertak jaso, etab. egin daiteke tresna hauen bidez. Informazioa jasotzeaz gain, informa-zio hori besteekin (talde publiko zein pribatuekin) era parte-hartzaile batean tru-katzeko aukera handiak ematen ditu. Gure edukiak gure esparrutik kanpo zabal-tzeko aukera ere ematen dute jarioek. Horien formatu estandarri esker, edukia mila lekutan jartzeko aukera ematen dute esfortzu minimo bat eginez. Gaur egun, enpresa, elkarte edo taldeek sindikazioan oinarritutako informazio kudeaketa be-rritzailea egiteko beharra dute.

Resumen: Gestión de la información a través de la sindicación y de las he-rramientas folksonómicas. La sindicación es útil desde hace tiempo pero no se ha propagado hasta el estallido de los blogs. Ese ámbito ya lo ha superado y en la actualidad en la mayoría de sitios tenemos opción de sindicarnos. Esto nos da la posibilidad de suscribirnos a una cantidad abundante de distintas fuen-tes de información para que siempre permanezcamos informados. Cada vez es más importante hacer una correcta gestión de la información. Conocer las no-ticias de nuestro entorno, nuestra empresa, grupo, conocer lo que se dice sobre la sociedad, recibir avisos... es posible a través de estas herramientas. Aparte de recibir información nos brinda la posibilidad de intercambiar información tanto con grupos públicos como privados. Los flujos también nos dan la posibi-lidad de propagar nuestros contenidos fuera de nuestros ámbitos. Haciendo un mínimo esfuerzo, gracias a estos formatos estándar tenemos la opción de poner estos contenidos en múltiples lugares. Las empresas, asociaciones y grupos de hoy en día deben basarse en la sindicación para una gestión innovadora de la información.

Web sozialaren garaian informazio uholdea oso handia izan daiteke, baina era berean hau kontrolatu eta erabili ahal izateko tresna berriak ditugu. Horien artean bi tresna garrantzitsu daude: eduki sindikazioa eta tresna folksonomikoak.

Informazioa jaso eta erabiltzeko edozein prozesutan bezala, aurrelan bat dago. Prozesu horretan beharrak detektatu, informazioa bilatu eta jaso, informazioa tratatu, informazio hori hedatu eta, berriro ere, prozesuaren analisi bat egin beharko da.

Testuingurua ere garrantzitsua da, web 2.0 edo web soziala deitu den horretan kokatzen gara. Bertan egon eta eragin ahal izateko entzun, eztabaidatu eta bukatu bertan eragiteko bideak sortu behar ditugu. Entzuteko fasean batez ere da informazio kudeaketaren inguruan guri dagokiguna, eta hor sindikazioak eta tresna folksonomikoek asko lagunduko digute.

Sindikazioa edukien eguneraketan beste pauso bat da. Informazioaren bila joan beharrean jario irakurgailuen bidez harpidetutako iturrietako informazioa eguneratzen denean bakarrik jasoko dugu. Hori posible egin ahal izateko, webguneek harpidetzeko aukera ematen duten jarioak eskaini behar dituzte; jario hauek formatu ezberdinetakoak izan daitezke, baina orokorrean bi formatu familia topatu daitezke RSS eta Atom familiak. RSS familiaren barnean mota ezberdinak badaude ere denak, bakar batean txertatzen dira. Azken finean, informazioa prozesagarria izango den formatu batzuetan ematen duten fitxategiak dira. Honi esker jario irakurgailuek hauetara harpidetu eta informazioa jaso ahal izango dute.

Jario irakurgailuak mota ezberdinetakoak izan daitezke. Web zerbitzuak edo instalatu beharreko aplikazioak izan daitezke. Web zerbitzuak erabiltzeko nabigatzaile bat beharko dugu, kontu bat sortu eta erabiltzen has gaitezke, Google Reader (<http://reader.google.com>) edota Bloglines (<http://bloglines.com>) adibidez. Besteak aldiz, gure ordenagailuan instalatu behar izango ditugu erabiltzeko. Honelakoak dira Liferea (<http://liferea.sourceforge.net>), RSSbandit (<http://rssbandit.org>) edo FeedReader (<http://feedreader.com>).

Sindikazioarekin loturik, podcast-a dago. Podcasta audio edo bideo fitxategiak lotzen dituzten jario bereziak dira. Normalean jarioan dagoen *enclosure* etiketa baten definitzen da audio edo bideo fitxategi hori zein helbidetik hartu daitekeen. Honela jario irakurgailu bereziek fitxategi hori jaitsi edo erabili ahal izango dute. Era honetako jarioetara harpidetzeko jario irakurgailu bereziak daude. Audio podcast-ei dagokionez ezagunenak Juice (<http://juicereceiver.sourceforge.net/>), iTunes (<http://www.apple.com/es/itunes/overview/>), Songbird (<http://getsongbird.com>). Bideorako aldiz Miro (<http://getmiro.com>) da interesgarriena.

Sindikazio tresnak harpidetzeko aukera ematen badute, formatu estandarrek izanik beste hainbat gauzetarako balio dute. Hainbat iturritako informazioa leku bakar batean bistaratu, jarioetako informazioa beste formatu batzuetan erakutsi, etab.

Askotan arazoa ez da informazio iturri egokiak aurkitzea baizik eta interesatzen ez zaigun informazioa iragaztea. Hori ekidin ahal izateko informazio iturriak filtratzeko aukera ematen duten beste hainbat tresna daude, horietako bat Yahoo Pipes (<http://pipes.yahoo.com>). Honi jarioetako informazioa batu, iragazi, itzuli ahal izango dugu. Oso tresna interesgarria da, baina ikasketa prozesu txiki bat beharrezkoa da.

Baina, sindikazioa erabili ahal izateko webgune edo zerbitzuak jarioak eskaini behar ditu. Interesatzen zaizkigunek ez badute sindikatzeo aukera ematen, horiek

sailkatuta eta gorde ahal izateko tresna folksonomikoak erabili daitezke. Tresna folksonomiko hauen bidez interesatzen zaigun horren URLa gorde, deskribapen bat gehitu eta deskriptore edo etiketak gaineratuko dizkiogu. Honela, etiketa sorta horrek amaieran egitura folksonomiko bat sortuko digu, etiketa laino baten bidez edota bilaketen bidez aurretik gorde dugun baliabide hori aurkitzeko aukera erraztuz.

Tresna hauek interes handiagoa dute baldin eta jende kopuru handienak erabili. Bakoitzak etiketa bidez egin dezakeen sailkapenaz gain, tresna erabiltzen duten beste erabiltzaileek egindako sailkapenak ere interesgarriak izan daitezke. Azkenean, bakoitzak egindako bildumez osatutako egitura folksonomiko bat sortzen da. Horrelako tresnak dira delicious (<http://delicious.com>) edo euskarazko Bildu (<http://bildu.net>).

Hala ere, gaur egun tresna hauek behar izateak, WWWean metadatuaren falta erakusten du. Etorkizunean webgune eta zerbitzuek informazio semantiko gehiago izango dute eta orain sindikazioa edo tresna folksonomikoekin egiten ditugun nahasketa eta aukeraketa guztiak, eskala handiagoan egin ahal izango ditugu. Mikroformatuek (<http://microformats.org>) adibidez, orain arteko html etiketak erabiliz, informazioa eduki dezaketen kode zatiei informazio semantikoa gehitzen saiatzen dira. Ekitaldiak kodetzeko hCalendar mikroformatua erabiltzen da, kontaktuak kodetzeko hCard edota kritikentzako hReview.

Baina, hauek guztiak adibide oso txikiak dira. Badira beste teknologia batzuek, RDF kasu, etorkizunean webguneetako informazioa datu base baten moduan atzitzeko aukera emango digutenak. Horretarako gure webgune eta zerbitzuak prestatzen joango beharko gara. WWWean dagoen informazioa era automatikoan atzitzeko aukera dugunean, aukera berri asko agertuko dira.

XIII

Una visión de la gestión de contenidos web y el rol del gestor de información digital

Fernando Fernández de Aránguiz

Responsable de Proyecto de la empresa ODEI
ODEI enpresako Proiektu arduraduna

Resumen: La ponencia analiza qué es un Gestor de contenidos web (WCM) y qué tipos de gestores hay, desde soluciones empresariales, de software libre o soluciones a medida. También trata la integración de estos gestores con el resto de sistemas de información, así como el rol del gestor de información digital, su perfil, conocimientos, funciones, etc.

Laburpena: Web edukien kudeaketaren ikuspegi bat eta informazio digitalaren kudeatzailearen eginkizuna. Ponentziak web edukien kudeatzaileak (WCM) zer diren eta zein motatako kudeatzaileak dauden aztertzen du, bai enpresentzat pentsatutakoak, software librekoak edota neurrira egindakoa. Kudeatzaile horiek gainontzeko informazio sistemekin nola integratzen diren ere aztertzen du, baita informazio digitalaren kudeatzailearen betekizuna, ezaugarriak, ezagutzak, funtzioak, etab. zein diren ere.

Provengo de la empresa ODEI, una empresa de Vitoria que se dedica a los servicios y a las tecnologías de la información. Desarrollamos sistemas de información de todo tipo, haciendo desde la consultoría inicial —para ver la oportunidad de llevar a cabo proyectos y cómo hacerlos—, hasta el desarrollo de estos proyectos e incluso, en algunos casos, su explotación, ya que tenemos gente experta para llevar a cabo esos sistemas. Esta sería una dimensión de nuestro trabajo; la otra dimensión sería repetir esto tantas veces como tipos de sistemas de información haya: sistemas de información generalmente documentales, temas de archivo, seguimiento de prensa, bibliotecas...; y, también, webs más convencionales, de explotación de datos, de proceso de negocio de las empresas, etc. Con esta experiencia como bagaje, voy a hablar de la gestión de contenidos web: qué es, qué modelos hay, qué herramientas se emplean y cómo se integran con otros sistemas de información; y también voy a tratar el papel del gestor de información digital: cuáles son sus funciones, qué conocimientos debe poseer, etc.

1. GESTIÓN DE CONTENIDOS WEB

Los gestores de información necesitan comunicar algo, y lo hacen a través de los contenidos web. Esos contenidos web se encajan en una página web, que está

dentro de una estructura mayor que le da sentido y que permite llegar a esa página o intentar localizarla. Esos sitios web forman parte de la World Wide Web, que sería el conjunto de todos los sitios web navegables; y esta www forma parte de Internet. A veces, Web e Internet se utilizan como sinónimos, pero tienen su diferencia. Internet sería la red que permite comunicarnos y navegar, pero esa red nos posibilita muchas otras cosas, como transferir ficheros, intercambiar correo electrónico, etc.

Pero lo más importante de todo, lo que le da sentido a todo esto, es que detrás hay un usuario, hay un consumidor de esa información. Vemos cómo usuarios y gestores de información —aunque tengan unas capas tecnológicas intermedias— están muy unidos: si hay un gestor de información es porque en el otro lado hay un usuario que va a demandar esa información.

1.1. Qué es la gestión de contenidos web


Primero vamos a mencionar cómo son esos contenidos web, cómo se encajan, para explicar a continuación qué son los gestores de información. Respecto a la gestión de contenidos, veremos un modelo muy completo, que Jokin Olaizola conoce bien, por haberlo creado él mismo. A continuación hablaremos de herramientas y de integración con otros sistemas de información.

En cuanto a la necesidad de la gestión de contenidos web, cada organización, cada empresa, cada institución tiene una actividad principal o un negocio que llevar adelante. Todo se modela a partir de procesos, en función de la información y sus flujos, muchas veces canalizados a través de los documentos. Hay una necesidad clara de difundir la información, en primer lugar al entorno de la organización; en un segundo nivel a clientes y proveedores; y en un tercer nivel a clientes potenciales, público objetivo o público en general. Respecto a los procesos, tenemos también la necesidad de gestionarlos a nivel interno y externo. Para todo ello, uno de los mecanismos que existe, y que ahora está en boga, es el de los sitios web. Por todo ello, la gestión de contenidos web no es solamente hacer páginas web, es hacer páginas web con un objetivo: difundir una información o llevar adelante una serie de procesos.

1.2. Modelo de gestión

Como modelo completo de gestión de contenidos web, podemos consultar el modelo de presencia en Internet del Gobierno Vasco.

En este modelo hay unas herramientas principales, que serán básicamente un gestor de portales y un gestor de contenidos, que harán su labor en primera línea. Estas herramientas estarán coordinadas con unos ejes de catalogación que permitirán documentar esos contenidos, y que posibilitarán hacer unas búsquedas más fáciles, apoyadas por un buscador, que es también una simple herramienta,



que puede utilizar distintas técnicas (por indexación de palabras o aprovechando previas catalogaciones). Todo ello con un libro de estilo, que nos permitirá unificar la forma de presentación de las cosas, y un modelo organizativo que nos dirá quién hace qué. En algunas organizaciones una sola persona hará todo el trabajo, mientras que en organizaciones grandes y con muchos recursos las distintas tareas estarán especializadas, como en el modelo del Gobierno Vasco en Internet.

Visto desde la parte interna, habrá una gestión de contenidos, gestores que con la herramienta de gestor de contenidos vayan generando contenidos, y habrá gestores de portales, que con una visión más amplia organizarán esos portales. Todo ello para que la ciudadanía pueda acceder a esa información, en el caso del Gobierno Vasco a través de Euskadi.net, accediendo directamente a las páginas o buscando la información.

1.3. Herramientas

La herramienta principal para la gestión de contenidos son los sistemas de gestión de contenidos web, *Web Content Management Systems* (WCMS). Las herramientas han ido evolucionando, desde las muy sencillas que había antes, muy ligadas a la informática, a las herramientas que hay ahora, que permiten hacer cosas muy buenas a usuarios sin experiencia y difundir la información de una manera


muy sencilla. Tienen una edición muy fácil y no hace falta conocer HTML ni otro tipo de lenguajes. Permiten hacer una gestión distribuida de la edición de los contenidos. Ellos mismos van evolucionando y nos van ofreciendo nuevas herramientas y, además, se van encargando de cumplir ciertas normas que son muy importantes, como las referidas a la accesibilidad.

En el mercado encontramos diferentes alternativas. Hay soluciones empresariales (como Documentum, Interwoven...) que son grandes herramientas sobre las que hay que construir el sistema de gestión de contenidos específico que queremos. Éstas no son cosas que podamos ver. Las que sí se pueden ver, y a las que todos tenemos acceso, son soluciones de software libre, herramientas como Drupal, Jomla, Plone, etc. que permiten a un usuario no informático llevar adelante una web con unas características casi profesionales. Eso sí, es necesario ajustarse a lo que el programa da, y no se puede cambiar; pero lo que da ya es bastante. Hay un sitio web llamado OpenSourceCMS <<http://opensourcecms.com/>> donde están puestas todas estas herramientas de software libre de gestión de webs, para que el usuario las pruebe directamente o bien las descargue en su PC o en su servidor. Es un sitio muy interesante para quien quiera explorar el mundo del software libre de los gestores de contenido. Tiene la virtud de haber conseguido agrupar iniciativas, y quien tiene algo nuevo lo publica aquí, porque es su mejor ventana, su mejor escaparate.

También existen soluciones a medida (como J2EE, ASP.net...), porque no a todo el mundo le resulta válido el producto ya cerrado como es un *open source*, y algunos quieren integrarlo con otros sistemas de información de la organización.

1.4. Integración con otros sistemas de información

Una empresa o una gran organización tendrá seguramente muchos sistemas de información y de gestión funcionando, como por ejemplo la planificación de sus recursos, sus procesos, las relaciones con los clientes... Si es una institución, una administración pública, tendrá ya su propia gestión de expedientes, tendrá incluso herramientas horizontales de uso como son los sistemas de gestión documental que darán soporte a otros sistemas de información. En definitiva, no siempre los contenidos web se generan de cero, hay veces que esa información ya está en los sistemas de gestión, y lo que queremos publicar hacia fuera es sólo una parte. Para estos casos hay básicamente dos alternativas. La primera sería elaborar unos procesos de carga que nos permitan alimentar la web —generalmente una web de contenidos estáticos donde lo que se generan son páginas HTML— a base de una información que en su momento, en los sistemas de información, era dinámica. La segunda alternativa consiste en desarrollarle a la web unos procesos de consulta que vayan contra nuestros sistemas de información, y de ahí recuperar los datos que necesitamos mostrar, y que generalmente será un subconjunto de los que tengamos.



Todo esto en cuanto a la introducción a la gestión de contenidos web desde la perspectiva de una empresa como la nuestra, con los proyectos y necesidades con los que nos encontramos.

2. PAPEL DEL GESTOR DE INFORMACIÓN DIGITAL

2.1. Funciones del gestor de información digital

Es difícil categorizar el papel del gestor de información digital, ya que es una disciplina que no lleva tanto tiempo como otras (donde se puede decir lo que es un administrativo, lo que es un ingeniero de caminos, etc.). La gestión de contenidos web está a caballo de muchas disciplinas y no hay una que la centralice. De hecho, si vamos a buscar o queremos poner ofertas de empleo de esta área en los medios de comunicación, tenemos dificultades para ubicarlas, y a veces están en las categorías de Comunicación, Medios y Periodismo, a veces en Diseño y Creatividad, otras puramente en Informática... No hay un lugar concreto en la clasificación, pero lo que sí hay es una demanda real.

En los sitios pequeños vamos a encontrar al hombre-orquesta que tendrá que hacer de todo, porque no se puede tener mucha gente, ni gente especializada en las distintas cosas. Mientras que en una gran organización, donde las actividades están segmentadas y hay especialización, el gestor de información se dedicará a hacer una o dos cosas concretas.

¿Qué funciones vemos que se están demandando cuando nos piden personas que realicen esta actividad?

Una labor importante es la selección de contenidos. No todos los contenidos de la web son originales, ni tampoco todos las webs muestran contenidos propios,

:: Ofertas de empleo: Requisitos

❖ **Gestor de contenidos web**

- ✓ Se requiere Gestor de contenidos para varios portales web.
- ✓ Sus labores serán:
 - **Actualización de webs y blogs** con contenidos originales
 - **Gestión de las notas de prensa** recibidas de cara a su posible publicación
- ✓ Su objetivo principal será mantener las páginas que se le asignen actualizadas.
- ✓ El perfil ideal requiere una persona que tenga un nivel cultural medio-alto. La capacidad de trabajo en equipo es fundamental.
- ✓ Se valorará positivamente el conocimiento de Inglés.
- ✓ Es necesaria la experiencia previa en gestión de contenidos y/o redacción.

❖ **Redactor@ jefe**

- ✓ Asumirá las funciones de coordinación así como la **edición de noticias** de carácter económico para importante diario digital
- ✓ Requisitos:
 - Experiencia en **medios de internet**
 - Experiencia en dirección de equipos
 - Se valorará conocimiento del idioma inglés

❖ **Gestor de contenidos web**

- ✓ ... bajo la supervisión de los responsables de comunicación y gerencia, se encargará de **elaborar, volcar y actualizar** los contenidos del nuevo sitio web Agenda Viva Digital, a través de un programa de gestión de contenidos. Deberá buscar, manejar, clasificar y seleccionar documentación, directorios y múltiples...

❖ **Gestor de contenidos web**

- ✓ ...bajo la supervisión del coordinador y de la dirección de la Fundación Félix Rodríguez de la Fuente, será el encargado de agilizar la construcción y desarrollo de la plataforma Web del Proyecto de Convergencia del Mundo Rural y la Biodiversidad. Deberá **manejar, clasificar y seleccionar documentación y múltiples enlaces, así como gestionar foros, Blogs,...**

:: Funciones del gestor de información digital

- ❖ **Selección de contenidos. Dossiers.**
- ❖ **Redacción de contenidos**
- ❖ **Actualización de contenidos**
- ❖ **Organización de contenidos**
- ❖ **Administración del portal**
- ❖ **Diseño gráfico**
- ❖ **Catalogación**
- ❖ **Digitalización. OCR.**
- ❖ **Traducción**



son frecuentes las recopilaciones y la selección. Hay mucha información y, a veces, el valor añadido no está en generar cosas nuevas sino en seleccionar lo que interesa a ciertas personas. Por ejemplo, en webs que se dedican a hacer dossiers de prensa, seguimiento de prensa, una de las labores sería la selección de contenidos.

Por supuesto, también estarían las labores de redacción de contenidos y la actualización de esos contenidos; pueden existir diferentes figuras, una que redacta y otra que actualiza, esta última tiene una labor más de edición, más mecánica. Además estaría la organización de contenidos en un nivel superior, puesto que es necesaria una visión más global de lo que va a ser la web y de lo que se quiere comunicar. Asimismo está la administración del portal en sus aspectos más técnicos pero, incluso, en cuanto a organizar quién va a hacer qué cosas, cómo distribuir los contenidos, etc.

